KIROLA: DEBAGOIENDARRAK NAGUSI DEBA ARROKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALETAN /11


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko maiatzaren 4a • II. urtea • 20. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**GORKA KNÖRR**

*"Oreja lehendakari ikusi nahi du ETAk, horrela bere estrategia armatua justifikatzeko"* /9

**HERRIZ HERRI**

Elgetatik Ubera arteko bide zati txarrenak konponduko dituzte /4

**Goienka2a**

Intxortako frontea literaturagai

LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

# Lehenengo aldiz botoa emateko gertu

Hauteskundeak ditugu mintzagai aspaldian, hamabost eguneko kanpaina hasi baino askoz ere lehenago. Gauza asko gertatu dira azken hiru urteotan eta asko dago erabakitzeko maiatzaren 13an. Parte hartze handia izango ei da, hori diote, behintzat, soziologo, kazetari eta iritzi emaileek. Gutxi geratuko ei dira etxean, ikusiko dugu. Botoa lehenengo aldiz emateko aukera izango duten Debagoieneko bederatzi neska-mutikorekin izan gara. Euren iritziak jaso ditugu. /2-3













Goitik hasita, ezkerretik eskumara: Aitor, Aitziber, Ainhoa, Alex, Roberto eta Goretti.



SAIOA OIANGUREN

## *Babestutako 308 etxebizitza eraikiko dituzte Arrasaten*

Etxebizitza eta Ingurumen sailburu Patxi Ormazabalek eta Arrasateko alkate Xabier Zubizarretak Arrasaten babestutako 308 etxebizitza eraikitzeko lankidetza hitzarmena sinatu zuten atzo, eguena, Arrasateko Udalean. Lehengo Cerrajerako orubeetan, Saiolan eraikinaren ondoan, eraikiko dituzte etxeok eta oraindik noiz hasiko diren zehaztu barik dagoen arren, urtebete barru-edo hasiko dituzte. Egingo dituzten 308 etxebizitza horietatik, 206 babes ofizialekoak izango dira eta beste 102 etxebizitza sozialak. Azken horiek alokagai jarriko dituzte, 20.000 edo 25.000 pezetan gutxi gorabehera. Salgai jarriko dituztenak, ostera, 12-15 milioi inguru kostako dira. Edozelan ere, etxeak egiten hasten direnean zehaztuko da prezioa. /ENEKO AZKARATE


Baliozkoa maiatzaren 1etik 31ra.

BALIO-TXARTELA

500

€ 3,00



Erregaia ordaintzeko SABEKOko gasolindegian (Durango).

SABECO

Hipermerkatuak

ZUGAN PENTSATZEN DUGU

HAIN HAIN BESTE HURBIL



HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • SAILKATUAK/8 • KIROLA/10 • KULTURA/14-15 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAKUA /19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

# Botoa *lehe*

## Datozen hauteskundeetan, 1.325 gaztek izango dute botoa lehen aldiz emateko aukera

GOIENKARIA

Maiatzaren 13an, 54.331lagunek botoa emateko aukera izango dute Debagoieneko bederatzi herrietan. Horien artean, hauteskundeetan estreinakoz parte hartu ahal izango dute 1.325 gaztek.

Horietako batzuek, 1982an jaiotakoek, ez zituzten 18 urteak beteta joan den urteko martxoan hauteskundeak izan zirenean. Bestalde, 1983an jaiotakoen artean, maiatzaren 13aren aurretik 18 urte bete dituztenek izango dute oraingo hauteskundeetan parte hartzeko parada. Urteak geroago betetzen dituztenek hurrengo hauteskundeak arte itxaron beharko dute halabeharrez.

Politikari eta hedabideek oraingo hauteskundei halako garrantzia ematen ari diren bitartean, hautesle gazte hauen jarrera jakiteko interesa genuen, eta Debagoiena osatzen duten bederatzi herrietatik gazte bana aukeratu dugu.

Horietako batzuek kanpaina eta politikoak jarraitzen dituzte, beste batzuek, ordea, jaramon gutxi egiten diete, baina funtsean, gehienek hauteskundeotan esku hartzeko asmoa erakutsi dute, batez ere, euskararen eta euskal kulturaren alde egiteko edo Mayor Oreja lehendakari izan ez dadin.

| Herria | Hautesleen erroldа | Botoa lehenengoz |
|---|---|---|
| Bergara | 12.736 | 200 |
| Antzuola | 1.636 | 19 |
| Elgeta | 820 | 9 |
| Oñati | 8.977 | 141 |
| Arrasate | 20.100 | 783 |
| Aramaio | 1.219 | 17 |
| Aretxabaleta | 5.235 | 94 |
| Eskoriatza | 3.348 | 60 |
| Leintz Gatzaga | 260 | 2 |

Iturria: Debagoieneko udalak.



### Alex Aginagalde/Aramaio

Kanpaina garaian ez die politikoei inolako jaramonik egiten, baina urte barruan zertxobait bai, eta gai puntualetan ere adi ibiltzen da. Bestalde, lagun artean baino, eskolan berba egiten du politikaz. Botoa emateko ez dauka ilusio handirik, baina gauzak dauden moduan ikusita, argi dauka boto abertzalea eman behar dela. Beste hautagaiek euskararekiko duten jarrerak asko kezkatzen du, baita kontzertu ekonomikoak ere.



### Aitziber Muguruza/Bergara

Aitziberrek argi dauka nori eman botoa maiatzaren 13an. Bere ustetan, "18 urterekin ideiak nahiko argi izaten dira, eta adin aproposa iruditzen zait botoa eman ahal izateko". Politika kontuak ez dituela gehiegi jarraitzen aitortu digu: "orain pixka bat gehiago, telebistatik batez ere, kanpaina dela eta. Bestela, koadrilan, gutxitan berba egiten dugu politikari buruz". Emaitzei dagokienez, ez da ausartzen pronostiko bat ematera, baina itxaropena dauka bere botoak zerbaitetarako balio izango duela.



### I. Elorduizapatarietxe/Aretxabaleta

Ilusio handia du Ibonek bere aurreneko botoa emateko. Hauteskundeetan parte hartzea garrantzitsua dela uste du, azken batean, agintariak herritarrok aukeratzen baititugu. Horregatik, bere botoak zer edo zertarako balioko duen itxaropena du. Politikoez duen iritzia galdetu diogunean, berba asko, baina gero esandako erdia egiten dutela erantzun digu. Gobernuan partidu abertzale bat izatea gustatuko litzaioke, hemengo arazoak hobeto defendituko dituztelako.



### Izaskun Oianguren/Elgeta

Martxoaren 29an bete zituen 18 urte eta hauteskundeek ustekabean harrapatu dute: "Ez nuen uste aurten bozketak izango zirenik". Politika eta politikariak ez zaizkio interesatzen, "berba larregi egiten dute", eta ez ditu politika kontuak jarraitzen, "presoen kontuak-eta bai". Hala ere, maitzaren 13an bozkatu egingo du: "Mayor Oreja lehendakari izan ez dadin ahal den guztia egin behar da". Koadrilan zazpi dira eta lauk dute bozkatzeko aukera. Lauek emango ei dute botoa…, zezozertarako balio izango duelakoan.



### Aitor Pavon/Arrasate

Botoa emateak ez dauka bere bizitzan gorengo garrantzia, baina, nolabait, parte hartzeko aukera polita dela uste du Aitorrek. Horrekin lotuta, politika gutxi jarraitzen duela onartu badigu ere, are gutxiago kanpaina garaian. Baina gauza argi dauka: botoa emango ez balu beste batzuek erabiliko lukete, horregatik, maiatzaren 13an hurbilduko da hautestontzietara. Era berean, asko kezkatzen du euskal kultura eta hizkuntzak jasan dezakeen atzerapausoa, eta horren aldeko apustua egin behar dela uste du.

# aldiz

## Gazte batzuk politikaz gutxi arduratzen badira ere, gehienek argi dute botoa nori eman





### Roberto Idigoras/Oñati

Roberto, batez ere telebistatik jarraitzen ari da hauteskunde kanpaina. Koadrilan politika kontuez gehiegi hitz egiten ez duten arren, erabakita dauka botoa nori eman, ilusioa du maiatzaren 13ra begira. Bere iritziak balioa izango duela uste du, "guztion botoak direlako beharrezkoak hauteskundeetan". Gehien kezkatzen duen arazoa, "ETAk sortzen duen gatazkagatik, gizartean dagoen zatiketa" da. Abertzalea ez den lehendakaria aukeratua izatekotan, gauza asko aldatuko liratekeela dio, eta konfiantza du erakundeengan.

### Ainhoa Barandiaran/Leintz Gatzaga

Ez dauka botoa emateko ilusio berezirik; hala ere, 18 urte arte itxaron beharra ez zaio beharrezkoa iruditzen, gazteago ere ondo baiteritzo. Botoa emateak zerbaiterako balio duela uste du: egoerak txarrera egin ez dezan eta euskara hobeto defendatzeko, azken horrek asko arduratzen baitu. Lagun artean ez dute sarritan politikaz berba egiten eta ez du erakundeetan sinesten, Leintz Gatzagako Udalean, berriz, bai, hango eredua aproposa iruditzen baitzaio.





### Goretti Fernandez/Antzuola

18 urte urrian egin zituenez, maiatzaren 13an bozkatu egingo du, "Mayor Oreja lehendakari izan daitekeela pentsatzeak beldurra ematen du eta". Koadrilan 15 bat neska dira eta gehienak botoa ematera joango dira. Hala ere, politikan eta politikariengan ez du gehiegi sinisten, "hitz eta asmo politak erakusten dituzte, baina gero ez dute esandako dena betetzen". 18 urte bete arte ez ditu politika kontuak asko jarraitu; orain bai, ordea, "komunikabideetan, lagun artean...".

### Gartxot Zubizarreta/Eskoriatza

Iaz hamazortzi urte bete zituen Gartxotek, baina ez zuen botoa emateko aukerarik izan. Horregatik, aurten irrikitan dago bere lehen botoa hautes-ontzian sartzeko. Politika gainetik jarraitzen du, eta politikariek dioten erdia gezurra dela dakien arren, botoa ematea garrantzitsua dela deritzo, azken hitza eurek dute-eta. Euskararen egoerak kezkatzen du batez ere, eta agintean nortzuk egon euskarak aurrera edo atzera egingo duela garbi du.

## Bailaran, labur

HAUTESKUNDEAK

### Hauteskunde kanpaina lasaia orain arte Debagoienean

Hauteskunde kanpaina lasaia izaten ari da bailaran. Orain dela urte batzuetako hauteskundeekin alderatuz, oraingoan kalean gero eta kartel gutxiago ikusten dira, baina ipini pini dituzte. Ekitaldiei dagokienez, apur batzuk egin dituzte geurean. Gehienak EHk, ekitaldi txikiak, baina ugariak: bizikleta ibilaldia, mahai informatiboak, kale agerraldiak... Joan den astean, Arnaldo Otegiren hitzaldiak izan genituen. Bestalde, EAJ-EA eta PSE-EEko ordezkariak kalez kale ibili ziren. Datorren astean ere ibiliko dira EAJ-EAkoak. /ENEKO AZKARATE

INGURUMENA

### 600 lagun Lastertasun Handiko Trenaren aurkako ibilaldian

Joan den domekan, LHTren aurkako ibilaldia egin zuten Bergaratik Angiozarrera. Izan ere, Lastertasun Handiko Trenak gure bailara zeharkatuko du eta Angiozar-Udalatx inguruan eragingo du, bereziki. 600 bat lagun elkartu ziren. Aurten hastekoak dira trenbidearen ibilbidearen lanak. AHTa Gelditu! Elkarlanean talde sortu berriak deituta egin zuten domekako ibilaldia. Euskal Herriko hainbat erakunde eta mugimendu sozialek osatzen dute taldea, tartean, baita Angiozarko batzarrak ere. Talde horren ustez, "proiektua anti-soziala, anti-ekologikoa eta baliabide-xahutzailea da, eta Euskal Herriarendako ez da batere aproposa". /AINTZANE IRIZAR

PRESOAK

### "Pedrotxo", "Panti" eta "Kanto" presoei omenaldiak egunotan

Pedo Guridi "Pedrotxo" preso arrasatearrari omenaldia egin zioten joan den egubakoitzean Herriko Plazan. 20 urte pasatxo egin ditu Espainiako kartzeletan eta apirilean askatu berri dute. Bestalde, gaur, egubakoitza, eta bihar, Bergarako bi preso omenduko dituzte: Xabier Oregi "Panti" eta Luis Mari Azkargorta "Kanto". 14 eta 13 urte daroazte kartzelan, hurrenez hurren. Gaur, egubakoitza, 19:30etik aurrera, manifestazioa eta ekitaldi politikoa egingo dira San Martin plazan. Gauean, ostera, kontzertua gaztetxean. Zapaturako, Bergaratik Martutenerako ibilaldia iragarri dute eta gauean herri afaria eta erromeria Artatse elkartean. /E.A.

LANGILEEN PROTESTAK

### Lan istripuengatik protesta egiteko, ordubeteko lanuztea

Joan den egubakoitzean, Lan Segurtasuneko Nazioarteko Egunean, ordubeteko lanuztea egin zuten bailarako hainbat lantegitan sindikatuek deituta. 11:00etatik 12:00etara bitartean egin zuten lanuztea, eta bailarako hainbat herritan kale agerraldiak egin zituzten. Lanuztearen arrazoia da azken urteetan lan istripuek izan duten gorakada. Eguenean, lanuztearen aurreko egunean, langile batek bizia galdu zuen Donostian. Batez ere, enpresa handietan izan zuen eragina lanuzteak, baina lantegi txikiren batzuk ere utzi zuten lana ordubetez. Bestalde, herriz herriko mobilizazioak egiten ari dira enpresa pribatuetako garbitzaileak, apirilaren 23an greba hasi zutenetik. Lan Hitzarmen justuaga eskatzen dute. Apirilaren 26an, manifestazioa egin zuten Bergaran. Arrasaten ere hainbat kale agerraldi egin dituzte. /MONIKA BELASTEGI

BERGARA | II. TURISMO AZOKA

# Feritur, Debagoieneko II. Turismo Azoka, 12an eta 13an Bergaran

*Seminarioan jarriko duten karpan 20 postu inguru egongo dira*

MONIKA BELASTEGI

**Bergaran egingo da, aurten, Debagoieneko turismo azoka. Hilaren 12 eta 13an, Seminarioan jarriko duten karpa erraldoi batean, askotariko 20 turismo stand izango dira ikusgai.**



**Iaz arrakasta handiz antolatu zen Arrasaten Feritur azoka.** ARRASATE PRESS

Iaz egin zen lehenengo aldiz Feritur, Halcon Bidaiak agentziak Debagoieneko Mankomunitatearen laguntzaz antolatutako azoka. Arrasaten egin zuten orduan, eta hogeita lau stand ipini zituzten. Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin zuten, eta aurten, Bergarara ekarriko dute.

Debagoienak baliabide turistiko ugari duela uste dute antolatzaileek; baliabide natural, historiko eta turistikoak besteak beste. Hala ere, asko ezezagunak dira edo ez daude erabilera turistikorako prestatuta. Horregatik, aurten, bailarako eskaintza turistikoa komertzializatzeko ekimena aurkeztuko dute. Horixe da, bestalde, feriaren berritasun nagusia. Eskaintza horretan Debagoiena zein Gipuzkoako gainerako herrietako ostatu eta zerbitzu turistikoak jasoko dira. Asmoa da turistak bere bidaia diseinatzeko aukera ematea, eta jakina, bailara ezagutzera ematea.

**KARPA ERRALDOIA**

Hilaren 12 eta 13an egingo dute feria. Seminarioko patioan jarriko dute. Karpa erraldoiaren azpian hogei postu inguru izango dira. Mankomunitateak bi postu izango ditu. Bestalde, parke tematiko, hegazkin konpainia, bidaia agentzia maiorista eta hotel kate artean, honako postu hauek egongo dira besteak beste: Disney, Futuroscope, Costa Cruceros, Hoteles Catalania eta Turismo Costa Blanca.

OÑATI | ALOÑAKO GURUTZEAREN 100. URTEURRE

# Zapatuan Aloñara ibilaldia, urteurrena ospatzeko

*Aloñari buruzko liburu bat argitaratuko dute eta argazki zaharrak behar dituzte*

AINTZANE IRIZAR

Laster beteko dira 100 urte Aloñako gurutzea jarri zutenetik. Ipini zutenean hainbat ospakizun egin zituzten, eta baita 50. urteurrenean ere. Eta, orain, 100 urte betetzera doazen honetan ere, ospakizunak antolatu dituzte. Talde bat elkartu, eta urte osoan zehar ekitaldi ugari antolatu dute. Lehendabizi, gurutzea bera eta inguruak txukuntzeaz arduratu zen talde bat, egoera kaskarrean zeuden-eta.

Biharko, zapaturako, Aloñarako igoera antolatu dute. Goizeko 8:30ean dute hitzordua Oñatiko plazatik Aloñara joan nahi duten guztiek. 9:30ean Urtiagainera iritsiko dira. Handik Belarrera abiatu eta 10:30ean iritsiko dira, eta 11:30 aldera ailegatuko ei dira Aloñara. Beraz, plazatik beharrean, ibilaldiari goraxeago lotu nahi izanez gero ere, badago aukera.

Behin Aloñara iritsita, eguerd 12:00etan meza egongo da gur tzearen aurrealdean, Oñatiko ti tulariek lagunduta. Antolatzai ek jakinarazi dutenez, gurutzea e inguruen konponketak ordai tzeko bi kontu korronte zabal dituzte Kutxan eta Euskadi Kutxan; Aloña Mendi tabernan e itsulapiko bat jarri dute.

Bestalde, Gabonen ingur ko Aloñari buruzko liburu b argitaratzeko asmoa dute, e horretan dihardute hainbat la nek. Iñazio Irizar ari da libur egiteko koordinatzaile lane Aloñako gurutze gain, hainbat gai jor tuko dituzte libur horretan: Aloña me diaren ezaugarri fi koak, artzaintza, ka biak, galtzadak eta bi ak... Liburua egite ere, herritarren lagu tza eskatu dute; hor la, Aloña ingur argazki zaharrak dit tenek, Aloña Men tabernan uztea e arduradunetako bati ematea eskatu d

> **Zertzelada**
>
> **Aloñako gurutzearen historiaz gain, hainbat gai jorratuko dituzte liburuan: artzaintza, mendiaren beraren ezaugarriak, karobiak, bideak eta galtzadak...**

ANTZUOLA | SAN ISIDROAK

# Ganadurik ez, baina ekitaldi ugari San Isidrotan

*Gaztetxekoek ere egitarau zabala antolatu dute*

AINTZANE IRIZAR

Maiatzaren 19an ospatuko dute San Isidro eguna. Ganadurik ez da izango, naparria dela-eta ezarritako koarentena luzatu egin baitu Eusko Jaurlaritzak. Hala ere, ez da zer ikusirik eta ekitaldirik faltako. Kaleetan postu ugari jarriko dute: gazta, pastel, artisau eta bestelakoak ikusi eta erosteko aukera izango da. Kukumarro erakusketa ere izango da. 10:30etik aurrera, salda hartzeko aukera Trekutz elkartean. Gaztetxekoek ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte udalarekin lankidetzan, guztiz zehazteke duten arren egitaraua. Goizean, trikipoteoa egingo dute, eta eguerdian, bazkaria gaztetxean. Arratsaldean, herri kirolak egiteko asmoa dute. Gauean, berriz, erromeria egingo dute gaztetxean.

Oñatiarrei urteetan konfiantza eta zerbitzua emanez.
GARAI HARATEGIA
...eta ez zaitzatela zoratu!
EUSKAL OKELA
EUSKADIKO BEHI OKELA
Maiatzaren 1a plaza, 2
OÑATI
Tel.: 943 78 02 59

ELGETA | ERREPIDEEN KONPONKETAK

# Lur zorua konponduko dute Bergaratik datorren errepidean

*Izarriko buelta eta Ubera sarrerakoa ere berriztuko dituzte*

IBAN ARANTZABAL

Bidezorua sendotzeko proiektua abian da apirilaren 24an onartutako erabakiaren ondorioz. Lehenik eta behin kamioiek eragindako bigunguneak dauden lekuak konponduko dituzte, izan ere, errepide horretatik pisu asko ibiltzen da gora eta behera eta bideak sartugune dezenteak ditu. Gero bost zentimetroko kapa botako dute zoruan, horrela bidean izotzek eta abarrek eragindako zulotxoak estaltzeko.

Oraingoz, Sestorako bidea dagoen lekua baino pixka bat beheragotik hasiko dituzte konponketa lanok. Asfaltoa botako dute Elgeta pasatu eta poligono industrialeraino doan bidean. Obra osagarri moduan, bide ertzean, urerretenaren ordez, 80 zentrimetro duen kainua jarriko dute beste pare bat arketarekin batera.

Lan hauek egiteko aurrekontua 22 milioi ingurukoa da eta lanak burutzeko epea 2 hilabetekoa.


**Izarriko buelta dela eta, kamioi askok ezin izaten du bide horretatik etorri.**

**IZARRIKO ERREBUELTA ETA UBERA SARRERAKOA ERE KONPONTZEKOTAN**

Izarriko bueltan, premia egon arren, oraindik ez dute konponketarik egingo. Horren arrazoia dagoeneko egiten diharduten proiektua da. Proiektuan agertzen den moduan, Izarriko errebuelta zabaldu egingo dute, bai Arantzeta auzunera doan bidearen eskuinaldea lurrarekin betez, eta ba Sagastitxu baserrirako bidegu tze ingurutik bidea 2 metro ing ru zabalduz Izarriko errebue raino. Horrela izanda, Altube ba rritik Izarriko bueltaraino bi zuzena geratuko da eta kamio erosoago hartu ahal izango d horrenbeste buruhauste ema dizkien errebuelta.

ARAMAIO | HOBEKUNTZAK OLETA AUZOAN

# Oleta auzoan propano gasa sartzeko egitasmoa lantzen dihardute

*Ur eroanbideak berritu behar dituzte*

UBANE MADERA

Herriko auzoetan propano gasa sartzeko egitasmoarekin segituz, Oleta auzoari heldu zaio txanda. Izan ere, inguru hartan ur eroanbideak berritu behar direla eta, lan horiek aprobetxatu eta horrekin batera gasa sartzeko bidea prestatzea erabaki dute.

Eguaztenean bertan elkartu ziren udaleko ordezkariak auzoko ordezkariekin, lanon nondik norakoak erabakitzeko, eta udalean egingo den hurrengo osoko bilkuran adjudikatuko dituzte lubakia egiteko lanak.

Edozelan ere, hortik aurrera, guzti-guztia ez dago euren esku. Izan ere, lanen zati bat (lan mekanikoa) Repsol enpresak egin ohi du, eta hori egiteko baimen administratiboa behar du. Hortaz, oraindik asko falta da Oletan propano gasa izateko.

**DIRULAGUNTZAK EUROPATIK**

Horrez gain, herriko udalak inbertsio handia egin beharko du: guztira, 106 milioi pezeta. Hortik, zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiak emango du, hain justu, lubakia egiteko aurrekontuaren %25: denera, 17 bat milioi pezeta.

Hortik aurrera, Repsolek beste hiru bat milioi pezeta emango ditu, baina gainerakoa udalak ipini beharko du: 23'5 milioi pezeta. Eta udalak hainbeste ez duenez, Europara joko du dirulaguntza eske.

**BESTE HIRU AUZOTAN**

Oletarekin batera, Arriola, Arexola eta Eguzkierripa auzoetan ere hasiko dira gasa sartzen. Horrez gain, bukatzear daude Uribarri, Gureia, Zabola eta Altzaga auzoetako lanak. Herri erdialdeari dagokionez, duela bi urte egin zituzten gasifikazio lanak. Hortaz, amaituta daude lanok.

**Zertzelada**

**Inguru hartan ur eroanbideak berritu behar direla eta, lan horiek aprobetxatu eta horrekin batera gasa sartzeko bidea ere prestatzea erabaki du herriko udalak**

ARRASATE | BERRITZE LANAK MAKATZENAN

# Makatzena auzoa goitik behera berritzeko asmoa du udalak

*Auzoa oinezkoendako eta automobilendako egokitu gura du*

UBANE MADERA


UBANE MADERA

Arrasateko Udalak Makatzena auzoari gainerako auzoek duten kalitatea eman nahi dio, eta berriro urbanizatzea erabaki du. Oraingo asteko gobernu batzordeak lanok egiteko proiektua adjudikatzeko oinarriak onartu ditu. Hortaz, Makatzena berritzeko lehenengo pausoa eman dute.

**AUZOA EGOKITZEKO, HAINBAT ERAIKIN BOTAKO DITUZTE**

Oro har, udalaren asmoa auzoa egokitzea da, bai oinezkoendako eta baita automobilendako ere. Horrela, zenbait eraikin botako dituzte, lekua egiteko; aparkaleku berriak lortzeko neurriak ere hartuko dituzte eta egoera txarrean dauden azpiegiturak berrituko dituzte.

Horrez gain, zoladura lanak egitea ere aurrez ikusi du udalak: ur, argi, gas, telefono eta antzeko sareak ere berrituko dituzte eta baita kaleko altzariak ere (seinaleak, loretegiak, zakarrontziak, jarlekuak...). Oro har, auzoa goitik behera berrituko dute. Edozelan ere, esan bezala, proiektua egin barik dago oraindik. Udalak zazpi hilabete eta 8'5 milioi pezeta emango ditu proiektua egiteko. Hortaz, orain eskaintzak jaso eta horien artean erabaki beharko du.

Horrez gain, oraingo asteko gobernu batzordeak beste erabaki bat hartu du: eraikin publikoak eta izaera publikoko urbanizazioak guztiondako eskuragarri izateko egokitu behar dituztela, hain zuzen ere. Esaterako, udaletxearen sarrera-irteerak, Zerkaosteta kaletik Iturbide Egoitzaren eraikineko sarrera nagusia hobetzea eta Musakolako kiroldegiko eraikin nagusia egokitzea. Izaera publikoko eraikinen barruan, alde zaharreko Hesiz Kanpoko Urbanizazioak eskuragarritasun arauak errespetatuko ditu eta Monterron-Erguin oinezkoen zumardiaren zati berrian ere gauza bera egingo du, besteak beste. Hori guztia egiteko, udalak dirulaguntza eskatu dio Eusko Jaurlaritzari.

ARETXABALETA

## Otala zelaiko herri krosa jokatuko da domekan Urkulun

AMAGOIA LASAGABASTER

Almen kirol elkarteak eta Aretxabaletako Udalak antolatuta, Otala zelaiko herri krosa jokatuko da domekan Urkulun. Aurtengoa 23. aldia izango da, eta eguraldiak laguntzen badu, behintzat, parte hartze handia espero dute. Goizean, 11:00etan, hasita, lasterkari onenak garai baten Kamel Zianik egindako errekorra hausten saiatuko dira.

ESKORIATZA | IRAKASLE ESKOLAREN 25. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

# Federico Mayor Zaragoza eta Antonio Cancelo Irakasle Eskolan izango dira datorren astean

ENEKO AZKARATE

Ospe handiko pertsonak izango ditugu hizlari datorren astean Mondragon Unibertsitateko HUEZI Fakultatean. Federico Mayor Zaragoza UNESCOko zuzendari izandakoa eta gaur egun Cultura de Paz Fundazioko presidente denak gai honen inguruan jardungo du: *Gizarte ekonomiaren ekarpena XXI. mendeko erronka etiko-enpresarialern aurrean*. 15:00etan hasiko da ekitaldia. Gero, 17:30ean, Race Mathews Australiako Monash Unibertsitatekoak beste hitzaldi bat egingo du, *Elkarrekiko erantzukizuneko lan eta enpresa etika* gaiaren gainean. Race Mathews pentsamendu kooperatibo eta sozialkristauan aditua da.

Hurrengo egunean, goizez eta arratsaldez izango dira jardunaldiak. 09:30ean hasita, MCCko presidente Antonio Cancelok *MCCn etika enpresariala* gaia izango du mintzagai. 11:30ean, berriz, Joseba Azkarraga soziologoak *Etikaekonomia binomioa Arrasateko kooperatiba esperientzian* landuko du.

Arratsaldean, 15:30etik aurrera, mahai ingurua izango da, *Partehartzea: zergatik eta zertarako* gaiaren gainean. Jon Sarasuak, Luxio Ugartek, Joseba Ugaldek, Juanjo Otañoko, Alfonso Vazquezek eta Julio Cantonek esku hartuko dute.

Jardunaldiok Irakasle Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunen barruan antolatu dituzte. Martxoaren 29an hasi ziren ospakizun ekitaldiak eta maiatzaren 26an amaituko dira, eskolako irakasle eta ikasle izandakoen elkarretaratzearekin.

LENIZ MOTOR
JUAN M. ZUAZUBISKAR
· NEKAZARITZAKO ETA BASOGINTZAKO MAKINERIA.
· LOREZAINTZA.
Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78



Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12
Gizonak
Emakumeak
LUKO
JANTZIAK
Ibai-arteren bazkide

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 4a

## Zabalik



TXIPI ORMAETXEA

# Ikasi nahi eta ezin

**Ondoren salatuko dudana ez da ezezaguna euskaldunentzako, ziur asko hau irakurriko duten guztiek izango dute horren berri. Baina barruak eta buruak honexetaz idaztea eskatzen didate. Ez noa, hortaz, inori begiak zabalaraztera, gogoraraztearekin betea dut helburua.**

**Aurreko astean espetxe batean izan nintzen, hemendik ia 600 kilometrora, Castello de la Planan. Euskal Herriko Unibertsitatetik nindoan UPVn matrikulatutako euskal preso bi tutorizatzera, laguntza apur bat ematera. Kezka bat neraman barruan: beharbada ez nintzela gauza izango haien galderei eta beharrei erantzuteko. Izan ere, haiek ikasi behar dituzten zenbait ikasgai nahiko arrotzak dira eta niretzat. Baina kezka hori berehala uxatu nuen. Han arazoa beste bat da. Han zerbait ikasi nahi duenak sekulako oztopoak eta trabak gainditu behar ditu. Askoz handiagoak euskaraz ikasi gura badu. Hara: ikasturtea bukatzear dago eta ikasgai askotan oraindik oinarrizko informazioa ere (programa, ebaluaketa-modua...) jaso gabe zuten. Jakina, ekainerako ezin ezer egin. Eta irailerako ere nekez. Materiala euskaraz bada, Madriletik pasatu behar du, itzulia izan dadin. Eta abar (eta hemen asko geratzen da kontatu barik).**

**Duela urte batzuk UPVko irakasle euskaldun oso ezagun bati entzun nion euskal presoak pribilegiatuak zirela telefono-deiak egiteko aukera zutelako. Nik bisitatu ditudanetatik batek ordenagailua ere badu bere ziegan (Internetik gabe, jakina). Zer pentsatuko ote du irakasle ospetsu horrek?**

## Hemeroteka

### Euskarari buruz PPk uste duena esan du Fragak

Manuel Fraga Iribarnek, Galiziako Xuntako presidenteak, euskara "his- toriaurrekoa" dela esan du Espainiko Telebistari egindako adierazpen batean. Eta gaineratu du egun, "ederra izan arren", "museokoa" dela euskara. Francoren ministro ohiak ezjakintasun handia erakusten du, bai hizkuntzen garapenari buruz, eta bai euskarak gaur bizi duen egoerari buruz ere. Jakina da euskara, kalean ez ezik, hedabideetan, literaturan eta unibertsitatean ere erabiltzen dela, tresna bizia eta guztiz erabilgarria dela, eta euskal gizarteak guztiz onartu eta prestijioa eman diola. Baina Fragak badaki hau guztia, eta hala ere, euskara "museokoa" dela esan du, subkontzienteak traizio egin diolako. Gure hizkuntza nazionala hil zorian nahi luke Fragak, baina ez berak bakarrik, PP osoak ere bai, EAEko PPk barne.(...) Kontseiluak maiatzaren 13ko hautagaiei euskara sustatzeko zer asmo dituzten egindako galdera inork baino lehenago erantzun du PPk eta eskertzekoa da.

GARA. 2001-05-03

### Badatoz hauteskundeak

Abstentionistek ongi dakitenez, hauteskundeek ez dute deus balio sozietatea aldatzeko baina, zirkunstantzia historiko batzuetan, non gauden jakiteko parada onak dira. (...)

Gobernuak azkartu du ofentsiba espainolista, eta haren totalitarismoari gero eta gogorrago erantzuten dio euskal nazionalismo gordin batek. Abertzaleok herriaren osakin eragilea gara, joan den mendetik hona historiaren protagonistak: gu gabe ez litzateke Euskal Herririk. Berriz, Euskal Herriko espainolak hemengo herritarrak dira eta, denbora berean, espainolistak politikan eta kulturan. (...)

Konflikto baten aterabidea ez da batere argia. Abertzaleek, abertzale jarraituko dugun bitartean, ez dugu borondate hegemonikoa galduko, bai aldeko zirkunstantzia egoki berriak beharko ditugu populazio osoa gure proiektuan integratzeko. (...)

Gobernuaren ofentsibari aurre egieko ETAren ekintza armatuen bukaera arazo zentrala da, eta ETAk berak igorri behar dio seinalea Herri Batasunari.

Egingo du? Ausardia behar da hogeita hamar urteko bizimoduaren amaiera onartzeko, are gehiago azken gertakariak ikusita. (...) Agian, hauteskundeek mezu argiak emanen dituzte, eta behar dutenek entzungo.

Emilio Lopez Adan
ARGIA 2001-04-29

### PSE-EEren aniztasuna

Hauteskunde kanpaina hasi zen egun berean, PSE-EEk gazteoi zuzendutako gutun bat jaso nuen. Bertan, Redondok PSE-EEk gazteontzat zeukan proiektu "multikulturala" eta "integratzailea" goraipatzen zuen. Gutuna erdaraz zetorren, eta bueltа ematean konturatu nintzen, nire harridurarako, ez zetorrela euskaraz... beraien web orrira jo, eta dena erdara hutsez. Legalitateari eta estatutuari buruz hitz egiten duen Nicolas Redondok jakin beharko luke EAEn bai euskara eta bai gaztelania direla ofizialak; beraz, nire ustez, informazio hori gutzia bai euskaraz bai erdaraz idatzita egon beharko litzateke. Euskararen baztertze horrek asko esaten du alderdi horren euskararekiko jarrerari buruz.

Galder Segurola Fernandez
EUSKALDUNON EGUNKARIA
2001-05-03

### Hitzak eta harrikadak

Hauteskunde kanpainaren azken txanpan gaude, ia-ia itota. Azken bi urteok ez dakit nazkagarri ala negargarri izan ote diren, baina nekea nabaritzen da eta, gauzak horrela izanik, poesiari buruz arituko naiz, osasun mentala ez galtzeko asmo duinarekin. Poesiak egia sakonengana helarazten gaitu, eta hitzak eta mezuak zarata hutsak edota harrikadak besterik ez direnean, bertsoen edertasunari munduarekin elkartzeko biderik zintzoena deritzot.

Jose Angel Valente, Rene Chair edota Pedro Salinasen eraikuntza miresgarriek, hitzez hitz, politikatik at zorionez dauden betiko egietara eta galderetara garamatzate. Laino guztien gainetik zelatariek, olerkariek eguneroko erreālitatetik ez ihes, ordea, arnasa hartzeko aukera ezinhobeak eskaintzen dizkigute. Eta zer esanik ez, gauden momentuan, -ospa egiteko gogoaare gehiago. Benetako olerkiek, iraungitze data gainditzen dutenek alegia, Gizonarekin adiskidetzen gaituzte eta, batez ere, egunerokotasunean garrantzitsu eta oinarrizkoak iruditzen zaizkigun arazo larriak bere lekuan kokatzeko, azken finean, erlatibizatzeko tresnarik aproposenak izan daitezke. Maitasuna, bizitza -zenbatetan dago Euskadin?, "Heriotza iritsiko da eta zure begiak izango ditu...", zioen Pavesek.

Huskeriaz inguraturik gaudenean, pikulitxara bidaltzeko tentaziopean erortzeko zorian, olerkari klasiko baten poemak berrindartu eta errealitatearen begirada berri bat sortarazteko ahalmena dute. Beraz, garai iluna bizitzen gaudela badiogu, irteera aproposa, paradisu artifizialetara jo gabe, daukagu. Olerkia antidoto miresgarria da eta gainera sarritan gure ondoezak asetzen dizkigu.

Iñigo Urrutia
BERRIGARA 2001-05-04

### Udal kultura politikaren erronkak

(...) Ukaezina da Guggenheimek izan duen irudi-eragina. Baina ilunen dagoena, izan duen kultura oihartzuna da, bai onerako baita txarrerako ere: ez gara denok "Macdonald´s kultura" arlokoak, zorionez, baina, zoritxarrez, ez ditu gure kultura kontsumo parametroak handitu. (...)

Bestalde, Gugggenheimek izandako eraginaren ondoren udal kultura kudeatzaile asko sukarrak jota dabil, hau da, epe motzerako errentagarritasunarekiko itsututa, edo ekonomikoki eraginik eduki ez duenarekiko edo komunikabideetan agertzen ez denarekiko mesprezuak jota. Ildo honetatik agertzen den pentsamenduak doako kultura edo oso errentagarria ez dena kostutzat hartzen du eta ez inbertsiotzat. Eta honek arrisku handia dakar udal maillan, ezinezkoa delako udalerri bakoitzean Guggenheim bat izatea, eta ezin direlako baztertuta laga "hurbiltasunezko" kultura eskaerak.

Iñaki Lopez de Agileta
ARGIA 2001-04-29

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Holandak eutanasia aktiboa arautzeko legea onartu berri du. Eutanasia legeztatu duen munduko lehenengo herrialdea izan da Holanda. Aurreantzean, beraz, Holandan ez da delitua izango eutanasia aktiboa, baina kontrol zehatzen pean arautuko dute. Medikuek, baldintza batzuk bete beharko dituzte: batetik, gaixoak min jasanezina izan beharko du, eta ez diote hobekuntzarik aurrez ikusiko. Bestetik, gaixoak hiltzeko nahi garbia erakutsi beharko du, eta medikuak beste lankide baten iritzia eskatu beharko du. Gaixoari hiltzen lagundu ostean, medikua behartuta egongo da batzorde berezi bati kontuaren berri ematera. Batzorde hori mediku batek, legegizon batek eta etika aditu batek osatuko dute. Batzorde horrek aztertuko du baldintzak bete diren ala ez. Bete ez badituzte, Ministerio Fiskala jakinaren gainean ipini beharko du.

# Zer deritzozu eutanasia aktiboari?

## *Zentzuarekin bizi eta hil, hau eztabaida!*



XABIER GOMEZ
Apaiza

Gaur egun sendabide asko egon arren, badira gaixorik edo osasuna dugunok beharrezko ditugun bizigarriak: maitasuna eta fedea. Agian, gaixorik dagoen gizarteak, pertsona bati balore hauek osotasunean eskaini ezin dizkionean, "heriotz duinaren" aukera eskaintzen dio.

Neurri handi batean zilegi da gaixotasunak dakarren sufrimendua arintzeko ahal dugun guztia erabiltzea, nola ez, baina gaixoaren errealitate integrala kontuan harturik.

Nire ustez, eutanasiaren eztabaida, arretaz ukitu beharra dago. Ez da dena hain erraz, hain txuri hain beltz; lehendabizi gaixoa pertsona da, bere barruan mundu miresgarri bat du. Sentimendu, beldur, desio, eta bizi-egarriz beteriko nortasun propioa duen izena. Horregatik, errespetuz eta maitasunez hurbildu beharko ginateke berarengana. Nire ustez, urkoaren bizitzaren jabe ez bagaude; bizitza bere aniztasun eta agerraldian zaintzen badugu, nola ez babestu azkeneraino gaixoaren duintasuna?. Edozein modutara, ez gaitezen engainatu, jaiotzarekin batera heriotza dugu bidelagun. Ibilbidea luzeagoa, entretenituagoa eta emankorragoa izan daiteke, baina bizitzak heriotza du hilezkorra den fruitua. Bere tamainan, iratzartzen gaituen sufrimenduak, arrazoi bat behar du izan, gu gizakiago eta bizidunagoak nolakoak izan erakusteko besterik ez bada. Zentzuarekin bizi eta hil, hau eztabaida luzea!

## *Gizartea ez da inor eskubide hori kentzeko*



JUAN JOXE SAGARZAZU
Medikua

Nire iritziz, eutanasia legalizatu egin beharko lukete. Norbera delako bere bizitzaren jabe. Gizartea ez da inor eskubide hori kentzeko. Aukera bezala, zabaldu egin beharko lukete, eta gero norberak erabaki.

Garantia batzuekin, noski: gutxienez bi medikuren baimena (pertsona horren gaitzak irtenbiderik ez daukala ziurtatzeko, abusurik egin ez dadin, baita ere medikuen kontzientzia libratzeko...), gizartearekiko eginbeharrak beteta dauzkan garantia (adibidez, bi ume txiki ez ditzala utzi inongo laguntzarik gabe...).

Legalizatu ondoren, denon lana da ahalik eta pertsona gutxienek erabaki hori hartzea. Pertsona batek hiltzea eskatzen duenean, sufrimendu handi bat daukala esan nahi digu. Sufrimendu horren sustarrak aztertu (mina, ezina, tristura...) eta arintzen baditugu, bere bizi poza berriro ere etorriko zaio.

Eutanasia legalizatzeko beldur gara (suizidioa legalizatuko ote den, beste pertsona batzuk norberaren bizitzaren jabe egingo ote diren...). Normala da, ez dakigulako garbi zer gertatuko ote den. Baina beste nazio batzuen esperientziak bidea zabalduko digu.

### Eutanasia holandarra

Holandako Senatuak baiezkoa eman dio eutanasia aktiboa arautzeko legeari. Indarrean jarri aurretik gainditu beharreko legezko azken kontrola izan da, Europan ez ezik mundu osoan aitzindaria den arau honentzat. Berme juridiko modura, estu zainduko dute edozein saiakera gehiegikeriak saihesteko. Legelariek, sendagileek eta etikan adituek osatutako batzordeek aztertuko dute kasu bakoitza legearen arabera egin duten ala ez. Legez kanpo, eutanasia egiteak 12 urteko kartzelaldia ekar diezaioke sendagileari, gaixoaren heriotzean modu aktiboan partu hartuz gero, eta hiru urtekoa gaixoari bere buruaz beste egiteko baliabideak emanez gero. Helburua, balizko arrisku bi saihestea da, gizakiaren aldetik begiratuta mingarria, eta medikuki atzera egin ezinekoa den egoera baten aurrean: sendagileak edo senideek gaixoaren erabakian eragina izatea, eta osasun sistemek gaixo terminalak eutanasiara bultzatu ditzatela dirua aurreztearren.

Holandako formula arrisku horiei aurre egiteko prest dago, eta legalitate berri batentzako bidea zabaldu du –ahalegin arriskutsua bezain ausarta-. Legalitate berri horrek beste estatu batzuek, Espainiar Estatuak barne, herrialde garatuetan gero eta larriagoa den kontu honen aurrean hartu beharreko erabakiengan eragina izango du.

EL PAIS. 2001-04-11

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Zer deritzozu tabernen ordutegiari?*

## Gora eta Behera

**TRENAREN AURKAKO IBILALDIA**

Domekan Lastertasun Handiko Trenaren aurka Bergaratik Angiozarrera antolatutako ibilaldian parte hartze handia izan zen. Azpiegitura lan erraldoi honek bailaran egingo dituen kalteak aurrez ikusteko aukera izan genuen. Jendea ingurumenaz gehiago kezkatu dadin beharrezkoak dira era honetako ekimenak.

**SINDIKATUEN ZATIKETA**

Martitzenean ospatu zen Langileen Eguna. Langileen eskubideak aldarrikatzeko eguna izan arren, sindikatuak bakoitza bere aldetik, atera ziren kalera. Horrelako egun batean elkartzeko gauza ere ez dira, eta langileak babesteko elkarrekin indar egin beharrean hor dabiltza banatuta... Bestalde, oraingo astean Fragak euskararen inguruan esandakoak ere ezin ditugu ahaztu. Bera bai museoko pieza!



MARKOS GABILONDO
Komite Internazionalistak

## Koplak

### *Benidormetik bueltan*

Oporrak amaitu dira
bazoaz klasera,
gelako lagun guztiei
kontu kontatzera.

Koadrilarekin joan zera
Benidorm aldera,
egunez lo egin eta
gauez ligatzera.

Bergaran kamiseta bat
eta zapatilak,
Benidormen alkandora
ta praka berriak.

Ligatzeko asuntuan
ez zerate abilak,
han asko aldatzen dira
hemengo mutilak.

Sabela eta burua
zaizkizu kexatzen,
lau ordu lenago zeunden
kubata bukatzen.

Atzo Madrileko Carmen
zenun musukatzen,
nahiko lan badaukazu
Eiderri kontatzen.

AITOR SANCHEZ

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo, Mireia Larrañaga, Natali Martinez
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Iñaki Iturbe, Alex Azkarate
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Gasteiz.** Adurza aldean 89$m^2$ko etxebizitza salgai. Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, bi terraza, ganbara eta berogailau. Jantzita dago. 33.600.000 pezeta. 945 13 82 57.

**Bergara.** Aranerreka 23an etxebizitza salgai. 943 76 33 72 edo 627 43 92 71.

**Antzuola.** Beheko auzoan etxebizitza salgai. Jantzita. 943 76 60 86.

**Bergara.** Ibaiondo ibiltokian etxebizitza salgai. 943 76 32 58.

**Bergara.** Teilatupeko txapitula salgai. Berrituta. 606 03 15 22.

**Arrasate.** Erdialdean 116$m^2$ko etxebizitza salgai. Berrituta. 943 77 18 65.

**Arrasate.** Erguinen etxebizitza salgai. 70 $m^2$. Berrituta. Berogailua. Hiru logela, egongela, sukalde handia, komuna eta balkoia. 943 77 12 77.

**Bergara.** Ibargarai kalean etxebizitza berria salgai. 70 $m^2$. 678 28 20 91 edo 619 83 03 11.

**Arrasate.** Musakolan etxebizitza salgai (Antxo Abarka, 10-behea). 943 79 17 85.

**Arrasate.** Zarugalde kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela,… 82 $m^2$. 943 77 10 18.

**Oñati.** Etxebizitza eta garajea salgai. Prezioa negozia daiteke. 943 78 05 96. Gauez deitu.

**Arrasate.** Antxo Abarka kalean 67 $m^2$ko etxebizitza salgai. Berogailua. Erabat jantzita. Eguzkitsua eta argitsua. 943 77 13 44.

**Aretxabaleta.** Markole auzoan, kiroldegiaren ondoan etxebizitza salgai. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea, balkoia, garaje eta trasteroa. 639 37 24 45.

**Arrasate.** Erguin auzoan 65 $m^2$ko etxebizitza salgai. 639 96 29 51. Deitu 18:00etatik 21:00etara.

**Bergara.** Ibargarai kalean etxebizitza berria salgai. 70 m2. 678 28 20 91.

## 102. EROSI

**Aretxabaleta.** Etxebizitza erosiko nuke. 20-22 milioi bitartean. 943 71 46 80.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Tarragona.** San Carlos de la Rapitan etxebizitza alokagai, uztail osoan edo hamabost egun. 669 92 53 44.

**Benidorm.** Levanteko hondartzako lehen lerroan (Bilbao kalea) dagoen etxebizitza alokagai. 946 80 09 53. Marisa.

**Benidorm.** Igerilekua duen apartamentua alokagai, hilebeterako edo hamabost egunerako. 678 80 72 13. Deitu 21:30etik aurrera.

**Bergara.** Bolun etxebizitza alokagai. Jantzita. 607 41 14 44.

**Torrevieja** (Alacant). Bungalow-a alokatzen da ekainetik irailera. 943 79 52 94.

**Arrasate.** Eskola Politeknikoaren ondoan dagoen etxebizitza alokagai. 943 79 51 88.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** MUn ikasten ari diren lau ikaslek datorren ikasturterako etxebizitza errentean hartuko lukete. 652 75 19 33. Gauez.

**Arrasate** edo inguruetan etxebizitza alokatuko nuke. Txikia bada ez zait inporta. 943 78 12 73.

## 105. ETXEA OSATU

**Bergara.** Logelak alokatzen ditugu etxebizitza konpartitu baten, sukaldea eta egongela erabiltzeko aukerarekin. 943 76 55 26. Utzi mezua erantzungailuan.

**Oñati.** Errekalde 4an pertsona bat behar dugu pisua osatzeko. 687 20 55 72.

**Aretxabaleta.** Logela alokagai. Sukaldea erabiltzeko eskubidea. 627 64 27 13.

**Bergara.** Gela handia eta eguzkitsua alokagai herri erdialdean. 943 76 15 40.

**Arrasate.** Erdigunean ikasle edo langile batendako aproposa den logela alokatzen da maiatzetik aurrera. 606 63 33 11.

# 2/ GARAJEAK

## 201. SALGAI

**Bergara.** Santa Marinan garajea salgai. 943 76 28 98.

**Bergara.** Ibargarai kalean, 45.zenbakian. garajea salgai edo alokagai. 943 76 17 85.

**Garaje** komunitarioa salgai Loramendin. Leku handia du. 943 79 67 75.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea alokagai San Andresko Txindoki dorrean. 676 13 26 33.

**Arrasate.** Obenerreka kalean garajea alokagai. 943 79 09 63.

**Bergara.** Ibargarai kalean 45 $m^2$ko garaje bikoitza alokairuan. 639 49 02 20 edo 629 46 06 00.

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 6. MOTORRA | |
|---|---|---|---|
| 101. SALDU | 301. SALDU | 601. SALDU | 803. EMAN |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 602. EROSI | 804. HARTU |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 603. ALOKATU | 805. TRUKATU |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | 603. KONPONDU | 806. GALDU |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | 604. BESTELAKOAK | 807. AURKITU |
| 106. BESTELAKOAK | | | 808. BESTELAKOAK |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 205. BESTELAKOAK | **5. IRAKASKUNTZA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | 501. ESKAINTZAK | 801. SALDU | |
| | 502. ESKAERAK | 802. EROSI | |
| | 503. BESTELAKOAK | | |

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

# 3/ LOKALAK

Apotzagako San Migel MERENDEROA ALOKAGAI
943 71 49 96

## 301. SALDU

**Bergara.** Amillaga industrialdean 134 $m^2$ko lokala salgai. 670 73 95 36.

**Bergara.** San Lorentzoko industrialdean 350 m2ko lokala salgai. 943 76 31 79.

## 302. EROSI

**Bergara.** Erdialdean lokala erosi edo alokatu egingo nuke. 943 76 70 31.

## 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bost gaztek lokal txiki bat alokatzea nahi dugu. 669 73 77 19. Deitu: 17:15etik 21.00etara.

**Bergara.** Gazte talde batek lokala behar du. 943 76 00 90. Susana.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** 09:00etatik 11:30etara eta 15:00etatik 17:00etara emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 656 77 53 37.

**Bergara.** Neskamea, etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. 943 76 47 42.

**Bergara.** Arratsaldetan umeak zaintzeko emakumea gertu. 943 76 46 18.

**Emakumea** lanerako gertu. 649 39 02 66.

**Geratria** klinikoko laguntzailea pertsona zaharrak edo gaixoak zaintzeko gertu. Etxean edo ospitalean. 609 77 01 33.

**Arrasate.** Umeak zaintzeko emakumea gertu. 943 79 20 55.

**Bergara.** Neska gertu pertsona zaharrak zaintzeko. 943 76 06 92.

ARRASATE
TABERNA BATEN ZERBITZARIA BEHAR DA. INTERESATUOK UTZI MEZUA:
686 50 06 92

BERGARA
JATETXE BATEN SUKALDEAN LAN EGITEKO PERTSONA BAR BEHAR DA
943 76 59 19

**Astelehenetik** egubakoitzera eta arratsaldeko 15:00etatik 18.00etara garbiketa lanak egiteko neska gertu. Deitu 13.00etatik 15:00etara. 943 76 36 68.

**Arrasate.** Geriatria klinikoko laguntzaileak pertsona zaharrak edo gaixoak zainduko lituzke. 943 79 73 38.

**Bergara.** Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. 943 76 09 95. Felisa.

**Geriatria** laguntzailea gertu pertsona zaharrak edo gaixoak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. 606 88 52 85.

**Bergara.** Bi emakume gertu atariak, garajea eta abar garbitzeko. 943 76 07 66. Marta.

**Arrasate.** Geriatria laguntzaileak pertsoha zaharrak edo gaixoak (parkinsondunak, alzheimerdunak) zainduko lituzke. 943 79 36 14.

## 402. ESKAERAK

**Bergara.** Emakumea behar da abuztuan etxeko lanak egin eta adineko pertsona bati laguntzeko. 943 76 22 39. Bergara.

AGENTZIA INMOBILIARIO BATERAKO KOMERTZIALA DEBAGOIENA EREMUAN
- Euskara
- Sektorean esperientzia eta ordutegien malgutasuna baloratuko da
- Lan kontratua
- Soldata: hitzarmena + komisioak

Bidali curriculuma eta argazkia:
28 postakutxa, 20500 ARRASATE

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 502. ESKAERAK

**Bergara.** LOGSEko bigarren mailako matematikako eta kimikako eskolak hartuko nituzke. Gaztelaniaz. 943 76 39 86.

**Uztailean** eta abuztuan, ekonomia-kontabilitate enpresarialeko irakaslea behar dut. 943 77 17 25. Ilunkeran deitu.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Audi 8** Tdi urdina salgai. Itxiera bateratua, aire girotua, ABS, … Egoera onean. 113.000 Km. 659 87 47 60.

**Cota 348** motoa salgai. Egoera ona. 160.000 pezeta. 677 42 58 30.

**Seat Panda** salgai. SS-AC. Egoera ona. 677 42 58 30.

**Motorgac** Kanowey motoa salgai. 3.000 Km. 40.000 pezeta. 943 77 02 18.

**Opel Vectra** TD salgai. Bost urte ditu. Oso ondo zainduta. 617 78 73 48.

**Megane** Coupe 1900 Dti salgai. SS-BG. 943 76 45 34.

**Ford Escort** 1.4 salgai. 1987koa. 130.000 Km. Oso egoera ona. 175.000 pezeta. 943 76 15 20. Jesus.

**Opel Cadett** GSI autoa salgai. Gehigarri askorekin. 350.000 pezeta. 627 41 77 59.

**Opel Corsa** TR 1300 autoa salgai. 60.000 Km. 175.000 pezeta. 943 76 02 92. Gauez deitu.

**Seat 600** salgai. Egoera ona. 200.000 pezeta. 667 57 04 52.

**Golf GTI** salgai. SS-AX. Gehigarri askorekin. 607 40 25 40.

**Ford Orion** 1600 Ghia salgai. SS-AB. 105 CV. Sabaian lehioa du. 619 83 70 00. Josu.

## 602. EROSI

**Moto** bat erosiko nuke 20.000 pezetan. 659 76 96 06.

**Motoa.** Montesa, Bultaco edo Ossa mendiko motoa erosiko nuke. 656 75 76 98.

# 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Boxer** emea eta arra salgai. Arrak tigrearen estiloko azala du, zuriguneekin eta belarriak moztuta ditu. Prezio ona. 696 05 73 46. Deitu 18:00etatik aurrera.

**Alemaniako** bi artzain txakur salgai. Pedigridunak. Arrak dira. 630 64 11 70. Deitu 19:00etatik aurrera.

**Ia berriak** dauden garbigailua eta hozkailua salgai. Prezio ona. 943 76 22 56. Maitane.

## 703. EMAN

**Txakurkumeak** oparitzen ditut. 943 78 15 19.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

Hiru mahai eta hamabi egurrezko aulki salgai
943 79 05 75

**Garbigailua.** Panelgarria ez den Newpool markako garbigailua salgai. Berria. 850 bira/m. 25.000 pezeta. 943 79 40 44 edo 943 77 18 19.

**Trialerako** kaskoa salgai. 943 71 46 79. Arratsaldeetan deitu.

**Percepcion** (Mr. Clean) markako piragua salgai. Palarekin eta ura ez sartzeko zorroarekin. 943 76 14 95.

**Ile apaindegirako** altzariak salgai. 150.000 pezeta. 943 76 25 38.

**Kutxa-izozkailua** salgai. 20.000 pezeta. 943 76 25 38.

**Trialeko** Beta Zero markako motoa salgai. Egoera onean. 677 89 12 80.

**Bugno Amadeus** errepideko bizikleta salgai. 52 neurriko Aluminium 7020 USA 7005 koadroa, Shimano. 943 79 08 23.

**Bafleak.** 300 W-ko bafleak salgai. Entseatzeko modukoak. Biak: 36.000 pezeta. 943 71 46 79. Arratsaldeetan deitu.

**Piragua** salgai. 943 76 28 98.

**Autorako** Sony irratikaseta salgai. 12.000 pezeta. 943 76 25 12.

**Ume** edo gazteendako aproposa den logela osoa salgai. Gortinak opari. 943 76 37 96.

**Kanpadenda** familiarra salgai. Bi logela, sarrera eta aterpearekin. 13.000 pezeta. 943 76 37 96.

## 802. EROSI

Txanponak
Metal guztietako txanponak, bankuko bileteak eta dokumentu zaharrak erosten dira. Deituz gero, bila joango naiz. Ondo ordaintzen dut. Deitu 20:00etatik 22:00etara.
945 44 50 44

## 804. HARTU

**Bizikleta** zaharrak jasoko ditugu Arrasateko Txatxilipurdi elkartean maiatzean. 943 79 54 46. Itziar.

## 806. GALDU

**Bergara.** Erramu zapatuan txamarra berde ilun bat galdu nuen txorimaloen erakusketan. 943 76 27 75.

## 808. BESTELAKOAK

**Bergara.** Mendirako Orbea markako bizikleta (larrosa eta beltza kolorekoa) lapurtu zidaten apirilaren 10ean Alkabieta kalean. 943 76 06 25.

## 807. AURKITU

**Arrasate.** Musakolan txakur txiki eme bat aurkitu nuen. 943 77 01 82.

# 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**35 urtetik** beherako mutilekin harremanak izatea nahiko nuke. Idatzi 91 posta kutxa zenbakira. 20560 Oñati. Xabi. Erabateko zuhurtasuna.

# DENAUTO/BIGARREN ESKUKO AUTOAK ETA AUTOEN ZERBITZUAK

DENAUTO

Aitzgain
OÑATI
SEAT · Audi
Tel.: 943 78 17 07 • Faxa: 943 71 80 74

MURILLO GARAJEA
Mekanika orokorra
EUROTALLER
KONFIANTZAZKO TAILERRA
Leizeaga 4 • Bergara • 943 76 13 84

KANPAZAR TAILERRAK
Alfa Romeo 145 1.6 1995
SS-AU. Direkzio lagundua.
Fiat Uno
SS-AD
Fiat Punto 1.2 2000
A-EL
Bizkaia etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98

Ford
GARAJE BERRIA, SL
Amillaga, 49 · BERGARA
San Lorenzo industrialdea
943 76 22 43 / 617 081 189
- Ford Focus 1.6i 16v Trend /99 — 5 ate / SS-BF
- Opel Corsa 1.7D Viva /97 — 3 ate / SS-AY
- Fiat Uno 1.0 Sting /95 — 3 ate / SS-AU
- Seat Ibiza 1.2 Special /92 — 3 ate / SS-AN
- Seat Toledo 1.8i 16v Sport GT /91 — 5 ate / SS-AL
- Ford Orion 1.6 Ghia /89 — 4 ate / SS-AD

ETAk su-etena hautsi baino astebete lehenago, 1999ko azaroan, aukeratu zuten Gorka Knörr (51 urte, Tarragona), EAko Idazkari Nagusi. Europarlamentaria ere bada, baina Gasteizko legebiltzarkide aukeratuko dutela eta (bigarrena da Gipuzkoako zerrendan), uste baino lehenago utzi beharko dio Bruselako aulkia ERCko kide bati.

ENEKO AZKARATE

**Zein da EAJ-EA koalizoaren helburu nagusia?**

Bizi dugun egoera politikoa dela eta, gehiago pentsatu behar dugu herriaren interesetan alderdiarenetan baino. Beraz, bi ardatz nagusi bultzatu behar ditugu une honetan: batetik, giza eskubideen babes sutsu eta irmoa. Bestetik, herri honetako hiritarrek duten eskubidea beren iritzia errespetatua izan dadin eta, nahi izanez gero, beste helburu batzuk erdiesteko bideak aztertu daitezen. Gaur egun bi muturren artean dago herriaren gehiengoa. Bi mutur horiek ez dituzte herritarren iritziak errespetatzen. Alde batetik, hor dago ETA. Nahiz eta mila bider esan herri honek bide demokratikoak urratu behar dituela, ez du kasurik egin. Beste muturrean, Gobernu espainiarra dago. Bi mutur horien artean dagoen gehiengo zabal hori garaile atera dadin, eta mutur horien estrategiak galtzaile atera daitezen, koalizioa osatu dugu EAJk eta EAk. Gure eskaintza elkarrizketaren gainean eraikitakoa da.

**Eta boto edo legebiltzarkide kopuruari dagokionez, zein da EAJ-EAren jomuga?**

500.000 botoren helburua aipatu da eta, eserlekuei dagokienez, 30-31 legebiltzarkideren bueltan egon gaitezke. Edozelan ere, lehen aipatu ditudan bi muturrek ordezkatzen dituzten proiektuak galtzaile ateratzea da gure nahia.

**Gobernu espainiarra eta ETA kokatu dituzu bi mutur horietan. Non kokatzen dituzu sozialistak?**

Sozialistak kezkatzen hasiak dira. Orain onartu ei dira Espainiako telebistak manipulatu egiten duela, eta onartu dute Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu zenetik indar abertzaleak gaizki tratatu dituela. Beraz, sozialistek ere publikoki onartu dute PPren aurrean makurtu behar izan dutela. Horregatik diogu Redondo Terreros eta PSE-EE, PPren klona direla.

**Hogei urte egon dira abertzaleak Ajuria Enean. Orain, ostera, lehen aldiz izan dezakegu abertzalea ez den lehendakaria. Zer deritzozu?**

Lehenik eta behin esan nahi dut sozialistak ere egon direla Gobernuan abertzaleekin batera. Beraz, sozialistei gogorarazi behar zaie zortzi urtean izan dutela lehengo hezkuntzaren ardura Gobernuan. Bestalde, uste dut PPk eta PSE-EEk ez dutela lortuko nahikoa legebiltzarkide abertzaleak Gobernutik kanpo geratzeko. Hala ere, aukeretako bat da, hurrengo lehendakaria abertzalea ez izatea. Eta hori gertatzen bada, ETAren erantzukizunagatik izango da. Konbentzituta nago, gainera, Mayor Oreja lehendakari ikusi nahi duela ETAk, horrela, bere estrategia armatua justifikatzeko.

**EAJ-EAk ez du erabateko gehiengorik izango gobernatzeko. Hortaz, norbaiten laguntza izan beharko du ezinbestez. Noren laguntza?**



ENEKO AZKARATE

# Gorka Knörr

EAko Idazkari Nagusia

# "Mayor Oreja lehendakari ikusi nahi du ETAk, horrela bere estrategia armatua justifikatzeko"

## GEHIENGO ZABALA

**"Gaur egun bi muturren artean dago herriaren gehiengoa. Bi mutur horien artean dagoen gehiengo zabal hori garaile atera dadin, osatu dugu EAJ-EA koalizioa"**

## SOZIALISTAK

**"Sozialistek ere onartu dute PPren aurrean makurtu behar izan dutela; gaur egun, Redondo eta PSE-EE, PPren klona dira"**

Esan dudan bezala, guk osatuko dugun Gobernuak bi ardatz nagusi izango ditu: giza eskubideen defentsa eta hiritarren borondatea errespetatzea. Hori kontuan izanda, litekeena da EAJk eta EAk bakarrik gobernatzea, edota Ezker Batuaren laguntzarekin, baina hauteskundeen aurretik hori aitortzea oso zaila du Madrazok. Hauteskundeen ondoren ere zaila izango zaio Ezker Batuari abertzaleekin batera gobernatzea, Espainia mailan izango lukeen kostu politikoagatik. Llamazaresek esan zidan Estrasburgon: "Que no pase por mí este cáliz". Edozein modutan, guk proposatzen dugun bideak gehiengo handia lortuko balu, besteen posizioek ere aldatzen hasi beharko luke-te. Bestalde, EHrekin gaur egun, ez dago akordio posiblerik, bide demokratikoak erabili eta indarkeria baztertzen ez badu. Hori da, besteak beste, Iparraldean gertatu dena. Abertzaleen Batasunak Frantziako eskuinarekin osatu ditu zerrendak eta koalizioak, baina garbi utziz, lehenbizi, indarkeriarekin ez dutela zer ikusirik.

**Beste aukera bat da EAJ eta EA oposiziora joatea...**

Edo gu, Eusko Alkartsuna, ere oposizioan egon gaitezke. Koalizioa bi ardatz edo baldintza nagusiren inguruan osatu dugu, lehen aipatu ditudan baldintzen inguruan. Hortaz, gerta liteke, bi baldintza horiek aintzat hartu ez eta EAJk gobernuari eustea, eta EA oposiziora pasatzea. Baina, egia esan, gaur egun ez dut hori aurrez ikusten.

**PPk eta PSE-EEk gobernua osatuko balute, EHk giltza izango luke, eta bere legebiltzarkideak momentuan momentuko interesen arabera erabiltzeko aukera izango luke...**

Horrek erakutsiko luke herri honetan gobernuak osatzea ez dela bat ere erraza. Hala ere, oposizioan egongo bagina, ez genuke izango PPk, PSE-EEk eta UAk aurreko legealdian Ibarretxerekiko izan duten jarrera. Baina, popularrek eta sozialistek Gobernuan hezkuntzaren edo euskararen aurkako ekimenak bultzatuko balituzte, oposizioko alderdiek, EH barne, ados jartzeko gauza izan beharko genuke.

**Zerk egin zuen huts Lizarra-Garaziko Akordioa, su-etena eta EAJk eta EAk EHrekin sinatutako Gobernu ituna pikutara joateko?**

Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu genuenok autokritika egin beharko genuke. Baina, argi dago, abertzaleen arteko elkarlanak argi gorriak piztuarazi zituela Madrilen. Lizarra-Garazi sekulako ustekabea izan zen Madrileko Gobernuarentzat. Ordura arte, konstituzionalistek esan ohi zuten: "Todo es posible sin la violencia". Lizarra-Garazik, ordea, erakutsi zuen hori ez zela guztiz egia. Hortaz, alde batetik, EHren maximalismoarengatik, zeren sinistuta daude sei herrialdeak elkartzen dituen estrategia bultzatu behar dela, eta hori sekulako hanka sartzea da nire ustez. Eta, bestetik, ETA berriro ere eskenatokira itzul zedin, eskuartean zituen karta guztiak erabili zituelako Madrileko Gobernuak. Su-etena hautsi zuen egun berean argi esan nion Otegiri: "Inork nahi bazuen Mayor Orejak orgasmo bat edukitzea, asmatu du bete-betean".

**Eta Lizarra-Garazi moduko beste akordio baterako girorik antzematen duzu orain?**

Ez. ETAk erabaki zuen zer egin behar zen, eta ETAk esandako guztiak bete ditu EHk, esaterako, Legebiltzarretik alde egin zuten ETAk esan zuelako joan egin behar zutela. Bestalde, bere momentuan, hirugarren espazioa deitua izan zena osatzeko ahaleginak egiten ari ginenean, ETAk zuzen-zuzenean egin zion eraso tarteko bide horri, eta batzuk pentsatzen hasi ziren ez ote zegoen infiltraturen bat ETAren barruan. Nik argi daukat, ETAri ez zaio gustatu Lizarra-Garaziko Akordioa. ETAk ez du bere indarra galdu nahi.

**Bake Konferentzia bultzatu nahian ari da Elkarri. Hortik etor daiteke konponbidea?**

Era diskretoan, batera eta bestera zubiak eraiki nahian dabiltza, eta horixe da nire ustez egin behar duguna, alegia, bakoitza bere neurrian, zubiak eraikitzen saiatu. Ez da samurra izango aurrera egitea, baina era honetako ekimenak bultzatu behar dira.

**Elkarrik dio gizarteak hartu behar duela aurrea, baina gizartea ilusio barik ez duzu ikusten?**

Indarkeriarekin nazkatuta dago herri hau. Hala ere, ilusioa berpizten saiatu behar dugu. Ez da erraza, ETAren erasoaldi gogorra dela medio.

**Aipatu duzun erasoaldi horrengatik, ezker abertzaleko ohiko boto emaileak berenganatu ditzake EAJ-EAk?**

Oso zaila da, baina gerta liteke EHren boto emaile izan direnek geuri ematea botoa. Edozelan ere, ikusten denez, HBn ere hausturaren garaia ba ei dator. Indarkeria itsu horren aurrean normala da hori gertatzea.

*Podiuma*

# Aritz Berraondo |ASPEKO PILOTARIA|

**Aritz Berraondo pilotari antzuolarrak (24 urte) bigarren mailako eskuz binakako finala jokatuko du gaur, egubakoitza, Xalaren aurka, Donostiako Atano III.a pilotalekuan, 22:45ean (ETB-1). Berraondok Elgetako lau t´erdiko txapelketa irabazi zuen 1996an eta gaurkoa bere lehenbiziko finala izango da profesionaletan. Antzuolarrak Galartza V.a kanporatu zuen finalerdietan, Eibarren.**


Aritz Berraondok profesionaletan lehen finala jokatuko du gaur.

**Berasaluze, Matute, Fuertes eta Galarza V.a atzean laga ondoren, txapela ia eskura daukazu. Zelako finala espero duzu?**

Ez da partidu erraza izango, Xala aurkari gogorra da eta. Orain arte, behin bakarrik jokatu dugu elkarren aurka eskuz banaka, eta berak irabazi zidan, 22-17, Aramaion. Espero dut emaitza hura ez errepikatzea. Hasiera batean, faboritoa bera dela esango nuke. Oso indartsu dago eta txapelketako sorpresarik nagusienetakoa izan da. Oso maila ona duela erakutsi du eta merezimendu osoz iritsi da finalera. Hala ere, nire jokoa egiten ahaleginduko naiz eta ea txapela eskuratzerik dudan. Behin finalera helduta, guztioi gustatzen zaigu irabaztea.

**Zuk ere txapelketa bikaina egin duzu finalera heldu aurretik. Zelan prestatu duzu txapelketa?**

Txapelketa hasi baino bi hilabete lehenago hasi nintzen entrenatzen, eta gehien prestatu dudan txapelketa izan da hau. Besteak beste, Mikel Goñi, Rai, Jorge Nagore edo Iker Muruamendiarazekin entrenatu naiz frontoian. Halaber, alderdi fisikoan nire prestatzaile fisiko Joaquin Plazak agindutako plana jarraitu dut. Aspen nagoenetik, bera da nire entrenatzailea. Txapelketak sasoi onean harrapatu nau eta gustura ibili naiz orain arte jokatutako partiduetan. Zorionez, eskuetan ere ez dut inolako arazorik izan eta hori ere gakoa izan da finalera heltzeko.

> **"Txapelketak sasoi onean harrapatu nau. Eskuetan arazorik ez izatea ere gakoa izan da finalera heltzeko"**

> **"Hasiera batean, faboritoa Xala dela esango nuke. Oso indartsu dago. Baina, finalera helduta, guztioi gustatzen zaigu irabaztea"**

**Finalean, zelako pilotak komeni zaizkizu?**

Bioi antzeko materiala gustatzen zaigu eta alde horretatik ez da arazorik izango. Nik botera gehiago jokatzen dut eta bera boterra ondo ibili arren, daukan defentsa goraipatuko nuke, batez ere, eskumarekin. Jokatzeko pilotak aukeratzen saiatuko naiz. Ea asmatzen dugun materialarekin eta pilotazaleek ere partiduarekin gozatzerik duten...

**Finala prestatzeko ezer berezirik egin duzu astean zehar?**

Ez, pilotalekuan entrenatu naiz, baina suabe. Fisikoki uste dut sasoi onean nagoela eta finala jokatzeko ilusioak ere laguntzen du sasoiari eusteko. Partidua jokatzeko gogotsu nago. Horrelakoetan beti izaten da urduritasuna partiduaren aurretik, baina ea aldageletan lagatzen ditugun eta nire jokoa egiten dudan.

**Zer ekarriko luke txapela lortzeak?**

Txapelketa bat irabazteak beti dauka bere garrantzia. Gainera, maila handiko txapelketa izan da hau. Hiru enpresetako pilotariak ibili gara elkarren aurka, txapelketa gogorra izan da, oso exigentea, eta irabazleari bere meritua aitortu behar zaio. Bigarren mailako txapelduna izatea garrantzitsua da eta txapela hor geratzen da, betiko.

**Atano III.a pilotalekua gustuko duzu?**

Bai, pilotalekua gustatzen zait. Hasieran, bazirudien finala Eibarko Astelenan jokatzekoa zela, baina berdin zidan.

**Nor izango da zure botileroa?**

Andoni Azkargorta. Laguna dut eta ondo moldatzen gara biok.

**Xalak jarraitzaile asko izango ei ditu.**

Antzuolan badago giroa eta pilotalekuan ere izango da.

EDU MENDIBIL

---

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Fernando Juaristi
## Futbolaria


Fernando Juaristik oso gazte debutatu zuen Bergararekin

Sanse taldean aritu zen bost urtez

Mirandesen eta Eibarren ere jokatu zuen

Bergarako futbol taldean erretiratu zen

Mutikotan pilota eta futbola tartekatu zituen arren, 14 urterekin, bata edo bestea aukeratu behar eta Fernandok futbolarekin jarraitzea erabaki zuen. 17 urterekin preferente mailan debuta egin zuen. Hurrengo urtean, Sansek fitxatu zuen eta bost urte egin zituen Expositoren aginduetara, 3. mailan. Sanseko belaunaldirik onenetakoa bizi izan zuen, eta besteak beste, Periko Alonso edo Zamorarekin batera jokatu zuen. Juaristik defentsa erdialdean jokatu zuen eta berak dioenez, "oso zaila zen lehen taldera igotzea eta 23 urterekin ez baduzu lortu... Oso urte onak egin nituen Donostian, asko ikasi nuen, baina beste talderen batera joateko ordua heldu zitzaidala pentsatu nuen". Mirandes taldeak deitu zion eta bi urte egin zituen han: "Mirandesek talde indartsua zeukan orduan, eta hirugarren mailatik bigarrenera igotzeko zorian izan ginen; azken jardunaldian nahikoa genuen etxean Langreoren aurka berdintzea, baina galdu egin genuen eta Palencia eta Oviedo igo ziren. Handik aurrera, Mirandesen gainbehera etorri zen". Valentziaren aurka ere jokatu zuten kopan eta Kempes golegilea zaintzeko ardura izan zuen.

Eibar taldean ere jokatu zuen 3. mailan. Bigarren urtean, denboraldi bikaina egin arren, ez zuten lortu 2. B mailara igotzea. Azken urteak Bergaran egin zituen, 3. mailan ere bai: "Mailari eustea izaten zen gure helburua". Futbola utzi ondoren entrenatzaile aritu zen Bergaran, Jesus Mari Larrañagarekin batera. Oraindik ere Realeko beteranoekin jokatzen ditu partiduak noizean behin. Azken 21 urtean Algodoneran jardun du lanean, Bergaran./ E.M.

*"Oso urte onak egin nituen Sansen, baina 23 urterekin beste talde batera joateko ordua zela pentsatu nuen"*



Fernando Juaristi • Bergara • 1955

---



## Nire Pronostikoa

MIKEL LARRAÑAGA / Bergarako Lokatza ziklismo eskolako presidentea

Realak partidu zaila izango du zapatuan Valentziaren aurka baina Las Palmasen porrot egin ondoren, beharrezkoa du garaipena eta partidua irabazi egingo duela uste dut. Oviedo ere ez dabil batere ondo eta Athleticek gutxienez puntu bat lortu dezake han. Alavesek, berriz, sailkapeneko azken aurreko tokian dagoen Racing hartuko du etxean eta kantabriarrei irabazteko ez dut uste arazorik izango dutenik. Azkenik, Osasunak Mallorcaren kontra jokatuko du. Nafarrak sasoi onean dira eta garaipen garrantzitsua lortu dezakete, nahiz eta mailari eusteko zaila duten.

**Oraingo astebukaerako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Reala | 1 | Valentzia | 0 |
| B/ | Oviedo | 1 | Athletic | 1 |
| C/ | Alaves | 2 | Racing | 0 |
| D/ | Osasuna | 1 | Mallorca | 0 |

# Aloña eskubaloi taldeak ez zuen Coruñan igoera lortzerik izan

Aloña Mendi KEko senior mutilen eskubaloi taldeak ez zuen lehen mailarako igoera lortu, astebukaeran Coruñan jokatutako igoera aldian. Oñatiarrak ligan bigarren sailkatu ondoren, beraien multzoetako txapeldun izan ziren Torrelavega, Codema Gijon eta Coruñako Fadesa Oar taldeen aurka neurtu zituzten indarrak Txus Aranbururen mutilek. Azkenean etxeko taldeak, Coruñako Fadesa Oar taldeak lortu zuen lehen mailarako igoera. Hala ere, txantxikuarrek txapelketa txukuna egin zuten Galizian.

Lehenbiziko partiduan, Coruñako Fadesa Oar taldearen aurka hain zuzen, gol bakar bategatik galdu zuten (21-20). Aranbururen arabera, "bagenekien lehen partidua klabea izango zela, eta gauzak zailak jarri genizkien etxekoei. Markagailuan ere aurretik izan ginen hainbat momentutan. Oso partidu serioa egin genuen eta, zalantzarik gabe, Eneko Gonzalez gure jokalaria izan zen partiduko onena. Bost gol egiteaz gain, partidu bikaina egin zuen. Zoritxarrez, azken minututan, ez genuen garaipena lortzerik izan. Zortea ez genuen alde izan".


Aloñak bi partidu galdu eta bakarra irabazi zuen Coruñan. DV

Bigarren partiduaren atarian, jokalariak beroketa ariketak egiten ari zirela, Eneko Gonzalezek min hartu zuen eta partidua jokatu egin zuen arren, ez zuen bere benetako maila azaldu. Taldeak ez zuen bezperan bezain ondo jokatu. Lehen zatia nahiko parekatua izan zen baina amaieran 23-17ko emaitzarekin galdu zuen Aloñak Codema Gijon taldearen aurka.

Azkenik, domekan, Aloña 21-20ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Torrelavegari.

Oro har, Txus Aranburu entrenatzailea pozik dago Coruñan egindakoarekin, eta bere jokalariei eskerrak eman nahi dizkie, "izugarrizko esfortzua egin dutelako eta portaera bikaina erakutsi dutelako".

Aloñak Kopa txapelketari ekingo dio orain. Gaur, egubakoitza, lehen mailarako igoera lortu duen Arrateren aurka jokatuko du Eibarren, 19:15ean. Kopa txapelketa itzuli bakar batean jokatuko dute.

# Debagoiendarrak nagusi Deba Arroko pilota txapelketako finaletan

## Zuazua-Agirre eta Errasti anaiak txapeldun

Debagoieneko pilotariek hiru finaletatik bi irabazi zituzten domeka goizean Antzuolan jokatutako Deba Arroko txapelketako finaletan. Kadete mailan Aritz Zuazua eta Aitor Agirre arrasatearrak izan ziren txapeldunak, Soraluzeko bikoteari 22-21eko emaitzarekin nagusitu ondoren. Gazte mailan, berriz, Debabarreneko bi bikote izan ziren nor baino nor, Soraluzekoa eta Eibarkoa hain zuzen. Iker Azagirre bergararrak, Jauregirekin batera bikotea osatuz, Soraluzeko taldeari eman zion garaipena, Etxaniz-Agirrebeña Eibarko bikoteari 22-16ko emaitzarekin irabazi ostean. Azkenik, seniorretan, Ibon eta Unai Errasti atxabaltar anaiek eskuratu zuten txapela, Ander Muguruza eta Igor Gutierrez bergararrei tantu batengatik irabaziz: 22-21. Bergararrak 16-21 izan ziren aurretik markagailuan, baina Gipuzkoako txapeldunek buelta eman zioten emaitzari.

Pilotazale ugari bildu zen Antzuolako pilotalekuan. Sari banaketan Aitor Elkoro eta Aritz Berraondo pilotariak izan ziren.


Arrasate, Soraluze eta Aretxabaletako bikoteak izan ziren txapeldun.



## 2001EKO HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK



# *Ibarretxe da baietza*

EUSKO ABERTZALEAK

EA
eusko
alkartasuna

EAJ
PNV

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko maiatzaren 4a

Kultura eta Aisialdia

Maiatzaren 4tik 11ra


# Intxortako frontea literaturagai

Juan Luis Zabalak *(Agur, Euzkadi)*, Juan Martin Elexpuruk *(Hamaika Ipuin)* eta Ramon Saizarbitoriak *(Gudari Zaharraren Gerra Galdua)* Intxorta eta bere inguruetan kokatu dituzte beren azken literatura lanen zati batzuk. Hiruretan, gogoratu egiten dira 1936ko gerran Intxorta inguruetan bizi izan ziren borroka latzak.

Sei hilabete eta erdian, 1936ko urriaren hasieratik 1937ko apirilaren amaiera arte, gudariek aurre egin zieten Intxortan, faxisten erasoei. Pablo Beldarrainek (militar bihurturiko mekanikari bizkaitarra), gudarien buruak, erabat aldatu zuen gerra egiteko modua eta oso jende gutxirekin, sekulako erresistentzia antolatu zuen inguru hartan. Azkenean, Hitlerren abiazioak zanpa-zanpa egin ondoren, Francoren tropen esku jausi zen. Hirurogeita lau urte bete berri dira. Harrezkero, Intxorta faxismoaren kontrako erresistentziaren ikur bihurtu da.

Txiripa hutsa ote 2000. urteko amaiera aldean kaleratu ziren hiru liburuk orduan gertaturikoak gomutatzea? /J.M.A. /14-15



Benigno Zurutuza nazionalista bergararraren ezkontza Elgetako frontean.

GOIO ARANA / ARGAZKIA

Historia

# Intxortako frontea hiru liburutan

RAMON SAIZARBITORIAK, JUAN MARTIN ELEXPURUK ETA JUAN LUIS ZABALAK INTXORTA INGURUETAN KOKATU DITUZTE AZKEN LANAK

**Durangoko Liburu eta Diskoen azokaren azken ediziorako, iazko abendurako, argitaratu ziren hiru liburu hauetan, Intxortan eta bere inguruetan kokatu dituzte autoreek beren azken literatura lanen zati batzuk. Ondorengo lerrootan aipatuko ditugu zati horiek.**

## Gerra-Urte (Hamaika Ipuin)

**JUAN MARTIN ELEXPURU**
Elkarlanean argitaletxea, Donostia 2000. 21 orrialde.

Juan Martinen azken liburuaren lehen ipuinean aipatzen dira Intxorta inguruko kontuak. Juan Martin bera Uberakoa da eta esan liteke garai hartako kontuak kontatzen dituela, baina Ubera aldetik ikusita. Hiru bider, Martiña protagonistarekin gaur egun izan duen elkarrizketa dakar gogora, hark berba egindako moduan ekarririk. Honela dio 14. orrialdean.

"Urrixan laua, goguangarrizko eguna. Errosarixo Domeka egunian izan zuan atakerik gogorrena, hildako mordua-eta. Amatrailadorekin-eta, trintxerekin-eta jarri zittuan Intxorta aldian, eta orduan etxauan igotzerik, jente asko joan arren. Etxe aurretik pasau zittuan kolumnia pasau zala-edo esaten juen; lau konpaiñia edo, pasau eta pasau eta pasau... Oiñezkuak, eta mando banaka batzuk be bai. Eta gure soro bixen erditik pasatzen zuan bidia, eta bide baztarrian piparrak; ederrak zeren eta pipar-landarak etara eta eruaten hasi soldaduak. Gure aitta'zanak esan jotsen piparra eruateko, baiña landarak lagatzeko. 'Tú también serás rojo; te daremos un tiro', bestiok erantzuna, eta aittak trote barrura...".

Hemen ere, maitasun istorio bat dago tartean, Martiña baserriko neska eta Andoni, Francoren aldean dabilen eta gudarien aldera pasatu nahi duen soldaduaren artean. Mutila hil egin zuten, beste aldera pasatzeko zorian zegoela.







## Gudari Zaharraren Gerra Galdua

**RAMON SAIZARBITORIA**
Erein, Donostia 2000. 99 orrialde.

Gerrako pentsioa ezin kobraturik dabilen gudari ohi baten azken egunak kontatzen dira eleberri labur honetan. Donostiarra izanik, Intxorta inguruan egin zuen Gerra Zibilak hanka bat baino gehiago kendu zion gudari ohiari: orduko maitea eta bizitzeko poza. Harrezkero, zurezko hanka batekin biziko da, gerra garaiko gomutak gainetik kendu ezinik.

Halako batean, taxi bat hartu eta Asentziora joango da, Eibar eta Elgetatik zehar. Loxeta baserrirantz doa, hantxe pasatu zuen-eta denbora gehien eta hangoa baitzen bere Miren bihotzekoa.

Arrasate, Elgeta eta Angiozararrerako bidegurutzean utziko du taxiak gudari zaharra, Juan Luis Zabalak bere liburuan ere aipatzen duen harriaren aurrean, eta handik abiatuko da Asentziorantz.

80. orrialdean, honela gogoratzen du Heinkel 51 gerra-hegazkin alemaniarren behin eta berriroko erasoa:

"Behin eta berriz ekin zioten, Udalaitzen atzetik azaldu eta Kanpanzar eta Zabaletamendi gainetik, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko mugari jarraituz, goitik behera Uberako ibarra gurutzatzeari, zumardiaren bertikaletik gora eginez bide beretik desagertzeko hegoaldera. Sei aldiz kontatu zuen berak, baina kontatzen hasi zenetik egina zuten itzuli bat baino gehiago".




## Agur, Euzkadi

**JUAN LUIS ZABALA**
Susa argitaletxea, Donostia, 2000. 161 orrialde.

Juan Luis Zabalaren eleberri honetan pasarterik garrantzitsuenetako bat Intxortan eta Angiozarko hilerrian gertatuko dira. Hona hemen pasarte horietako bat, Julen Lamarain —Estepan Urkiaga 'Lauaxeta'-rekin batera, eleberri honetako protagonista nagusia— Euskaldunon Egunkariako kazetariari gertatua. 29. orrialdean hasten da.

"Gerrari buruzko interesak horretaraturik, 1997ko irailelo lehen igandean, Lauaxeta ezagutu baino egun batzuk lehentxeago, Elgetara autobusean joan eta Intxortako 'odolezko mendietara' igo nintzen. Han pasatu nuen eguna, gerra garaian inguru hartan gertatutakoak buruan bueltaka nituela, faxisten hegazkinen erasoak eta gudarien mugimenduak irudikatzen. (...)

"Elgetatik gertu, errepidea utzi eta Intxortarako bidean pixka bat aurrera egin orduko, monolito bertikal handi batean, Francoren aldekoek 1937ko apirilaren 24 eta 25ean hildako lau elgetarren izenak irakurri nituen. Sesto-Gain, Antzuategi eta Antzuategi Baztarrekoa baserrietakoak ziren, harriak zioenez; hiru gizonezko eta emakume bat. Emakumeak nire deitura bera zuen. Lamarain'tar Prantziska, ibili-ibili eginda, tartekoa izatea ere ez zen ezinezkoa, gure aitona zena Elorriokoa omen zen-eta.

"Intxortatik jaitsi eta gero, beste harri bat ikusi nuen, Angiozarko errepideko bidegurutzearen parean: 'Euzkadi'k emen geldi-azo eban etsaiaren jazarraldia', zegoen idatzia harri hartan. Data batzuk ageri ziren behean: '1936.10.4 / 1937.4.20 ta 23'.

"Mendi ibilaldietan aurkitzen nituen hilarri guztiek hunkitzen baninduten ere, haiek aparteko indarra hartu zuten nire begien aurrean. Zirrara eragiten zidan inguru hartan gerra bat izan zela irudikatzeak; inguruko baserritar batzuk Francoren aldekoen eskuetan hiltzen eta beste batzuk inguruko mendietan Euzkadi Francoren atzapar etsaietatik defenditzen, armak eskuan hartuta, herriaren alde bizia emateko prest. Ez ziren artean 60 urte baino, eta hori huskeria bat da, 40 urte bizi izan den edonork ondotxo dakienez, 20 urte baino ez dituenari hala ez iruditu arren. Txikitatik nituen entzunak gerrako kontuak, etxean eta herrian, baina sekula ez nituen une hartan bezain gertu sentitu. Inguruko aktualitate garaikidea baino askoz ere gertuago".

**Lanbide Heziketa**

**Ingurugiroa**
- Ingurugiro kimika
- Ingurugiro osasuna

**Eraikuntza eta obra zibilak**
- Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa

**Osasungintza**
- Erizaintzako zainketa laguntzaileak
- Osasun-dokumentazioa

**Gorputz eta kirol ekintzak**
- Gorputz eta kirol ekintzak sustatzea

Arizmendi ikastola
LANBIDE HEZIKETA
Arizmendi, Koop. E.
Tel: 943 77 20 25
Faxa: 943 77 00 73
svhzikdo@conet.com
http://www.arizmendikoop.com
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

**Batxilergoak**

**Natur eta osasun-zientziak**
- Osasun zientziak
- Osasun zientziak + zientzia teknika
- Zientzia teknika

**Giza eta gizarte-zientziak:**
- Gizarte zientziak
- Gizarte zientziak + giza zientziak
- Giza zientziak

**Teknologikoa:**
- Zientzi teknika

Arizmendi ikastola
BATXILERGOAK
Arizmendi, Koop. E.
http://www.arizmendikoop.com
MONDRAGON

# Intxorta, 1936-37

Gerra denboran, Intxorta eta bere inguruetan (Elgeta, Angiozar, Bergara, Arrasate...), ateratako hainbat argazki betirako geratu dira. Batzuk, erasoaldi faxistari eusteko borrokatu ziren ehunka gudarirenak. Beste batzuk, Nazionalek hartutako herrienak eta buruzagi frankistenak. Gerraren eraginez, erabat hondatuta geratu ziren herrienak beste asko. Bergarako Murgizu anaiek bildu dituzte gerrako hainbat argazki. Horietako batzuk ikus ditzakezue orri honetan.



Erdian, Lino Lazkano, Loiola Batailoiko kapitaina.



Pablo Beldarrain (etzanda), beste nazionalista batzuekin Elgetan.



UHP batailoiko bergarararrak Durangon.



Angiozar Nazionalek hartua.



Horrela geratu zen Elgeta, gerraren eraginagatik (1937).



Ruiz de la Prada, erdian, Bergarako lehen alkate frankista.



Elgeta, erabat txikitua, Nazionalen esku.



Mondragoeko Dragoiak Elorrion.



Ezkerreko joerako errepublikarrak batzen zituen UHPk.



Buruzagi nazionalistak Burgosko presondegian.

# Angiozarko hilerrikoa

**Juan Luis Zabalak Angiozarko hilerrian jartzen du bere azken eleberriko pasarterik esanguratsuenetako bat. Intxortatik bueltan jaitsi zen protagonista Angiozar aldera.**

**"Kanpazar gaineko tabernan patata-tortilla pintxo bat jan eta baxoerdi bat hartu ondoren, artean denbora nahikoa nuelaeta, Arrasatera jaitsi beharrean, Angiozartik barrena Bergararaino joatea erabaki nuen. Angiozarra heldu baino pixka bat lehenago, hilerriarekin egin nuen topo ezustean. Hilerriaren sarrerako burdinazko bi ate beltzei begira geratu nintzen. Denbora pixka bat behar izan nuen ate haiek erakusten zitutzen hutsuneak letrak zirela jabetzeko, eta beste tarte bat artean ere letra haiek zeintzuk ziren deszifratzeko. Sekulako danbatekoa sentitu nuen barruan letra haiek osatutako esaldiaz jabetzera heldu nintzenean: 'il nintzan', zioen ezkerreko ateak; 'eta bizi naiz', eskuinekoak. Ondoeza egin zitzaidan, eta tarte bat egin nuen hantxe, hilerriaren atarian ahozpez etzanda, konorterik gabe. Ez zen, antza, tarte luzea izan, inork egoera kezkagarri hartan ikusi baino lehen itzuli bainintzen neure onera, harrituta, zer gertatu zitzaidan ezin ulerturik".**



# Maiatza: 4-11

**Edu Mendibil** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**ARRASATE**

> ***Comeme el punto*** antzezlana egubakoitzean, maiatzak 4, lamai kafetegian.

**BERGARA**

> **Juan Tamarizen** *Magia potagia* ikuskizuna egubakoitzean, maiatzak 4, Novedadesen, 22:30ean.

**ELORRIO**

> **Munduko kontu kontariak.** Alberto Borja kolonbiarraren *De mar y viento* egubakoitzean, hilak 4, Arriolan, 22:30ean. Zapatuan, maiatzak 5, Soledad Felloza uruguaitarraren *La vida es cuento*, gauerdian Arriolan.

## Musika

**ARRASATE**

> **Los putos amos eta Obligaciones** taldeak zapatuan, maiatzak 5, Gaztetxean, 22:00etan. Gaztetxearen 10. urteurrena.

**BERGARA**

> **Vargas Blues Band** egubakoitzean, maiatzak 4, Jam aretoan, 22:00etan.

> **Ene Bada** taldea egubakoitzean, maiatzak 4, Gaztetxean, 22:00etan. Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta.

> **Easo abesbatza** zapatuan, hilak 5, San Pedro parrokian, 20:00etan.

> **Mutrikuko Banda** domekan, hilak 6, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

> **Dimmu Borgir, Susperia** eta **Destruction** taldeak maiatzaren 11n Jam aretoan, 21:30ean.

> **Tresor night** maiatzaren 12an Jam aretoan: James Ruskin, Pacou, Sender Berlin (Stassy & Luke) eta beste hainbat.

**ESKORIATZA**

> **Arto bixarra eta Arkada social** taldeak egubakoitzean, maiatzak 4, Arrano eta Naira tabernetan, hurrenez hurren. Gazte Asanbladak antolatuta.

**OÑATI**

> **Steve Wynn** egubakoitzean, maiatzak 4, Gaztelekuan, 22:30ean.

## Erakusketak

**ARRASATE**

> **Jose Ramon Guerra** margolariaren erakusketa Toki Eder kafetegian maiatzean.

**BERGARA**

> **Aitor Larrañaga**ren pintura lanak maiatzaren 13ra arte Kultura Etxean.

> **Jon Balentziaga** margolari bergararraren erakusketa Donostiako Txapasta kafetegian (Igentea kalean) maiatzaren 13a arte.

**OÑATI**

> **Argazki erakusketa** Gaztelekuan maiatzaren 26ra arte.

## Lehiaketak

**ARRASATE**

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa,** Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 28an bukatuko da. Argibide gehiago 943 79 09 00 telefono zenbakian.

**BERGARA**

> **IV. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Lehiaketan, nahi duten artista guztiek parte hartu ahal izango dute, eta partaide bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Kartelen gaia *Zezenak Bergaran* izango da, eta lanek Bergarako motibo bat edukitzea beharrezkoa izango da. Neurria: 55x46 zentimetro, gutxienez, eta 146x114 zentimetro, gehienez. Lanak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, astelehenetik egubakoitzera, 2001eko maiatzaren 3a eta 10a bitartean, biak barne, 16:00etatik 21:00etara bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Sari banaketa 2001eko maiatzaren 19an izango da, zezenketako kartelaren aurkezpen ekitaldian.

> **Pegatina lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak Pazkoetarako. Asmatutako esaldiak ikastetxeetan eta tabernetan lagatako kaxetan utz ditzakezue maiatzaren 10era arte. Irabazleak 10.000 pezetako saria jasoko du.

> **Bergara Hiria argazki lehiaketa** Euskal Herriko argazki zaletuei zuzenduta. Zuribeltzeko edo koloretako argazkiak aurkez daitezke (mota bakoitzeko lau gehienez). Argazkiak 30x40 zentimetroko kartulinan aurkeztuko dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22an bukatuko da. Sari banaketa ekainaren 8an egingo da. Irabazleak 25.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu, eta beste hainbat sari ere egongo dira. Argibide gehiago 943 76 30 90 telefono zenbakian.

**OÑATI**

> **II. Oñati Hiria literatura sariak.** 18 urtetik gorako edonork har dezake parte.Lan guztiek euskaraz eta argitaragabeak izan beharko dute. Pertsona batek lan bakarra aurkeztu ahal izango du modalitate bakoitzean (ipuina, olerkia eta bertso-paperak). Lanak entregatzeko epea maiatzaren 11n bukatuko da. Argibide gehiago Oñatiko Udaleko euskara edo kultura zerbitzuetan.

**BEASAIN**

> **IV. Igartza literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat.** Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke. Bekak 1.000.000 pezetako diru laguntza izango du. Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibide gehiago Beasaingo udaleko euskara zerbitzuan, 943 02 80 50 zenbakian.

**AZPEITIA**

> **Kartel lehiaketa.** Euskal antzerki topaketaren XIX. ekitaldia dela eta, Azpeitiko Udalak kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan esku hartzeko mugaeguna: apirilaren 30a. Edozeinek parte har dezake, gehienez hiru lan aurkeztuz; lanak argitaratu barikoak izan beharko dira. Irabazleak 150.000 pezeta jasoko ditu. Argibide gehiago 943 15 72 00 telefonoan.

**DONOSTIA**

> **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako kartel lehiaketa.** Kartelaren esaldia: *Hitza informazioaren gizartean.* Edozein estilo eta teknika erabiliz eginiko lan guztiak onartuko dira. Kartelaren formatua 50x70 cm-koa izango da. Irabazleak 250.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 25ean bukatuko da. Argibideak 943 21 77 98 telefono zenbakian.

**GASTEIZ**

> **Txosnetako kartel lehiaketa,** Gasteizko Txosnen batzordeak deituta. Kartelaren neurria edozein izan daiteke. 50.000 pezetako sari bakarra emango da. Originalak aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatuko da. Lanak Hala Bedi tabernara (Aiztogileen kalea 100, 01001 Gasteiz) bidaliko dira.

> **Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia.** Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.



ANTZERKIA

### JUAN TAMARIZ MAGOA BERGARAN

Juan Tamariz mago madrildarrak *Magia potagia* izeneko ikuskizuna eskainiko du gaur gauean Bergaran. Tamariz ezagunak trikimailu zahar eta berriak tartekatuko ditu ia bi orduko saioan, eta ikusleak ere gonbidatuko ditu emanaldian parte hartzera. Karta jokoez gain, espiritismoari eskainitako tartea ere izango da. Txisteradun magoak umoreari berebiziko garrantzia ematen dio bere ikuskizunetan.

**Noiz:** Maiatzaren 4an Bergaran, Novedades aretoan, 22:30ean.
**Prezioa:** 1.500 pezeta/1.100 (26 urtetik beherakoentzat).

## Ikastaroak

**ARRASATE**

> **Argazkigintza** eta **bio-dantza ikastaroak** (hastapen maila biak) antolatu ditu Udaleko gazteria sailak. Argazkigintzakoa (hastapen maila) maiatzaren 5etik aurrera izango da, zapatu goizetan, 10:30etik 13:30era. Bio-dantza ikastaroa maiatzeko zapatuetan, arratsaldez. Izena ematea eta argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 telefonoan.

## Deiak

**ARRASATE**

> **Txatxilipurdi elkartea.** Urtero bezala Eguzki-Laru eguna ospatuko du elkarteak, eta hori dela eta, egun horretan parte hartu nahi dutenentzat izena ematea maiatzaren 15era arte zabalik izango da. Argibideak eta izena ematea 943 77 17 37 telefonoan (Jon edo Rebeka).

> **Lourdesera erromesaldia.** Arrasateko Osasun Pastoralak maiatzaren 26an autobusak antolatu ditu, Lourdesera joan-etorria egiteko, maiatzaren 24tik 28ra Gipuzkoako Elizbarrutiaren astea izango baita Lourdesen. Irteera goizeko 6etan izango da Garibaiko autobus geltokitik, eta Lourdesetik itzulera gaueko 22:30ean, zuzien prozesioaren ostean. Izena ematea Halcon bidai agentzian egin beharko duzue. Autobus txartelak 2.600 pezetan salduko dituzte.

**BERGARA**

> **Xipizaro ludoteka.** Uztaileko udaleku irekietarako izena ematea ko epea maiatzaren 5era arte izango da zabalik, 10:00etatik 12:00etara. Udalekuak haur hezkuntzako lehenengo mailatik DBHko 2. maila arteko umeendako dira. Plaza mugatuak. Bestalde, udalekuetan begirale izateko izena emateko epea maiatzaren 7tik 18ra izango da, 17:15etik 19:30era. 18 urte izatea beharrezkoa da. 943 76 23 76 .

> **Gazte Informazio Guneak** jakinarazi du maiatzaren 7ra arte zabalik izango dela trukaketen zozketan izena emateko epea, 1984tik 87ra bitartean jaiotakoen-



## Kontzertua

Steve Wynn amerikarraren emanaldia Oñatiko Gaztelekuan

Maiatzaren 4an, 22:30ean

tzat. Argibideak: 943 77 91 57 telefono zenbakian.

> **Hitzaldia:** *Arte civil desde la fundación de la villa en el siglo XVIII.* Hizlaria: Jesus Gil Massa. Eguenean, maiatzak 10, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean. San Joxepe elkarteak antolatuta.

> **Erretratu zaharrak.** Jardun elkartea, Debagoieneko euskara elkartearekin batera, bailarako herrietako argazki zaharrak biltzen hasi da, datorren urteko egutegia prestatzeko asmoz. Beraz, Jardunek dei egiten die herriko argazki zaharrak dituztenei Kartzela Zaharreko bulegotik pasatzeko. Debagoieneko beste euskara elkarteetara ere jo dezakete laguntzeko prest direnek.

> **Hitzaldia:** *Nire seme-alabak nola hezi kirolaren bidez.* Hizlaria: Luis Mari Zulaika heziketa fisikoko irakaslea. Astelehenean, maiatzak 7, Kultura Etxean, 19:00etan.

> **Kanpaldia**, Eolikoen aurkako taldeek antolatuta, maiatzaren 5ean eta 6an Irukurutzetan. Irteera Soraluzeko zubitik zapatuan 15:00etan. Goian afari-merienda, erromeria, akelarrea eta txotxa egingo dituzte. Domekan, 9:30ean, mendi ibilaldia egingo dute, errotak non jarriko dituzten ikusteko.

### ESKORIATZA

> **Etika eta enpresa jardunaldiak,** Eskoriatzako Irakasle Eskolan maiatzaren 10ean eta 11n. Besteak beste, Federico Mayor Zaragoza UNESCOko zuzendari ohia, Antonio Cancelo MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakaria edo Race Mathews Kudeaketa Publikorako Nazioarteko Zentruko ikertzailea (Monash Unibertsitatea, Australia) hizlari izango dira. Matrikula: 10.000 pezeta. Plaza mugatuak. Argibideak 943 71 41 57 telefono zenbakian.

> **Hitzaldia:** *Gazteak eta sexologia.* Hizlaria: Luis Elberdin sexologoa. Martitzenean, hilak 8, Kultura Etxean, 19:00etan. Gazte Asanbladak antolatuta.

### DEBAGOIENA

> **HHI-EPA.** Bergara, Soraluze eta Oñatiko Helduen Heziketa eskolek maiatzaren 11ra arte datorren ikasturterako eta maila ezberdinetan izena emateko aurrematrikula epea zabalik dagoela jakinarazten dute. Argibideak 943 76 44 52 (Bergara), 943 78 35 77 (Oñati) edo 943 75 30 17 (Soraluze) telefono zenbakietan.

# Zinema

**ARRASATE / ALAI ZINEMA**

***¿En qué piensan las mujeres?***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00,19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**BERGARA / NOVEDADES**

***Tigre y dragón***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***Las flores de Harrison***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**OÑATI / SANTA ANA**

***Enemigo a las puertas***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**

**UNZAGA**

***Chocolat***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

***Miss Agente Especial***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00,19:30, 22:15.
Domeka: 17:00,19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA**

***Chocolat***
Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

***Una relación privada***
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**ELORRIO / ARRIOLA**

***Billy Elliot***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

***Karramarro uhartea***
Domeka: 17:00.

**AZKOITIA / BAZTARTXO**

***Ogia eta arrosak***
Egubakoitza: 22:00.

***¿En qué piensan las mujeres?***
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

***Herida abierta***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***El palo***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Descubriendo a Forrester***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Los ríos de color púrpura***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Dime que no es verdad***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Miss Agente Especial***
Egubakoitzatik eguenera: 17:30.

***Torrente 2: Misión en Marbella***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Hombres de honor***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 22:30.

***Capitanes de abril***
Egubakoitzetik eguenera: 19:45.

**MIKELDI ZINEMAK**

***Silencio roto***
Egubakoitza: 22:45.
Zapatua: 16:00, 18:15, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 22:30.

***Premonición***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Noviembre dulce***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Torrente 2: Misión en Marbella***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El espinazo del diablo***
Egubakoitza: 20:00, 1:15.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

***Chocolat***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El viaje de Ariane***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Espera al último baile***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El viejo que leía novelas de amor***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Deep in the woods (En lo profundo del bosque)***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMA**

***Druidas***
Zapatua eta domeka: 16:00, 20:30.
Astebarruan: 17:30, 22:30.

***Herida abierta***
Zapatua eta domeka: 18:30, 22:45.
Astebarruan: 20:00.

**FLORIDA-GURIDI**

***El espinazo del diablo***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Enemigo a las puertas***
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 1:15.
Domekatik eguenera: 19:45.

***Silencio roto***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Trixie***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Premonición***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Traffic***
Egubakoitzatik eguenera: 17:00, 22:30.

***Mi dulce***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Noviembre dulce***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30, 22:30.

***Cara a cara***
Eguena: 19:45 (Montehermoso zikloa).

***Ogia eta arrosak***
Egunero: 12:30.




**TIGRE Y DRAGON**
**ZUZENDARIA: ANG LEE. AKTOREAK: CHOW YUN FAT, MICHELLE YEOH, ZHANG YIYI.**
**ADIN GUZTIAK**

Aurtengo Oscarretan irabazle nagusietako bat izan zen Ang Lee zuzendariaren filma (*Tormenta de hielo*), tartean atzerritar filmari zegokion saria jaso zuelarik. *Li Mu Bai* arte martzialetako maisuak bere lagun onenari herentzian utziko dio bere ezpata magikoa. Tartean gudari emakumezko bati eskatuko dio ezpata zaintzeko. Baina *Limu*ren aurkariek ezpata lapurtzea lortuko dute eta ezpataz jabetzeko borrokan era guztietako pertsonaiek hartuko dute parte...

**¿EN QUE PIENSAN LAS MUJERES?**
**ZUZENDARIA: NANCY MEYERS. AKTOREAK: MEL GIBSON, HELEN HUNT.**
**> 13 URTE**

Nancy Meyers zuzendariaren komedia honetan Mel Gibson (*Arma Letal, Braveheart*) eta Helen Hunt (Cadena de favores) aktoreak ditugu protagonista nagusiak. Nick Marshall (Mel Gibson) publizista oso matxista da, eta bere lankide emakumezkoekin ez da batere ondo konpontzen. Istripu bat izan ondoren, emakumeek pentsatzen dutena entzuten hasiko da.

# Jaiak

### BERGARA

> **Irukurutzetako erromeria** domekan, hilak 6. Meza 11:30ean pago bedeinkatuan, ondoren salda eta Irukurutzetara igoera. Bazkalostean Ainhoa eta Nerea trikitilariekin erromeria.

> **San Migel Monte Anglozarko Goimendi auzoan.** Domekan, 8:15ean meza eta ondoren luntxa. Kanpazarko tabernan bertsolariak eta trikitilariak.

### ESKORIATZA

> **Akelarrea Aitzorrotzen** zapatuan, hilak 5. Arratsaldeko 5etan igoera herriko plazatik irtenda. Goian jokoak, ipuin kontalariak, abeslariak, saiheski jana eta edariak egongo dira su inguruan. Norberak bere kanpadenda, afaria eta edariak eraman behar ditu. Gazte Asanbladak antolatuta.

> **Aitzorrotz eguna** domekan, hilak 6. Goizeko 9:00etan txistulariekin diana, 9.30ean Aitzorrotzera igoera, 11:30ean meza eta jarraian trikitilariak, bertsolariak eta herriko txistulariak. Bazkarirako txartelak Mirentxu, Arrano eta Urrestilla tabernetan egongo dira salgai. Arratsaldean, 17:00etan, Eskoriatzara jaitsiera eta 18:30ean plazan herritarrek egindako tortilak batuko dituzte. Egunean zehar batzen duten dirua Eskoriatzako atzeratuen taldeari eta Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundeak dituen proiektuei laguntzeko izango da.

## Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigara*ren egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan; Durana, 11
943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11
945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salbador, 26
943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1
943 76 60 62



**Goienkaria,**
bailarako
hedabide nagusia.

Astero
20.000 etxetan.

Prezioa:
10.000 pezeta.



**Gorka Lezeta Mateos** mondragoetarra eta **Ramon** aita, eskoriatzarra. Gorka apirilaren 25ean jaio zen. **Pilar** da ama, elgoibartarra.



**Aritz Limia Mendizabal** mondragoetarra eta **Jose Ramon** aita, Ourensekoa. Aritz apirilaren 25ean jaio zen, eta 3,450 kilo pisatu zuen. **Silvia** da ama, mondragoetarra.



**Aitor Murgiondo Atxa** eta **Jokin** aita, mondragoetarrak biak. Aitor apirilaren 25ean jaio zen, eta 2,420 kilo pisatu zuen. **Gurutze** da ama, mondragoetarra bera ere.

## JAIOTAKOAK

**Malen Txurruka Botas.** Arrasaten, apirilaren 19an.
**Endika De Tena Miguel.** Aretxabaletan, apirilaren 20an.
**Ariane Amozarrain Gonzalez.** Arrasaten, apirilaren 20an.
**Ander Murillo Astigarraga.** Oñatin, apirilaren 22an.
**Beñat Rodriguez Garcia.** Oñatin, apirilaren 22an.
**Nahia Eraña Mendez.** Aretxabaletan, apirilaren 25ean.
**Aritz Limia Mendizabal.** Arrasaten, apirilaren 25ean.
**Aitor Murgiondo Atxa.** Arrasaten, apirilaren 25ean.
**Gorka Lezeta Mateos.** Arrasaten, apirilaren 25ean.
**Asier Garro Diaz de Gereñu.** Eskoriatzan, apirilaren 26an.

## HILDAKOAK

**Honorio Aranda Martin.** Arrasaten, apirilaren 21ean, 67 urte zituela.
**Dominga Arrazola Lizaur.** Oñatin, apirilaren 25ean, 90 urte zituela.
**Manolita Gabilondo Aizpiri.** Bergaran, apirilaren 26an, 83 urte zituela.
**Hermenegildo Perez Perez.** Arrasaten, apirilaren 27an, 85 urte zituela.
**Juan Bote Gonzalez.** Bergaran, apirilaren 27an, 83 urte zituela.
**Emeteria Uriarte Azpiazu.** Bergaran, maiatzaren 1ean, 94 urte zituela.
**Francisco Saturnino Jauregi Zubizarreta.** Arrasaten, maiatzaren 1ean, 73 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Pedro Mari Izagirre Arantzabal** eta
**Esther Barroeta Belamendia,** Elgetan, apirilaren 28an.



**Oihana Laskurain Lauzirika** bergararra, eta **Beatriz** ama, eibartarra. Apirilaren 25ean jaio zen Oihana, eta 3,300 kilo pisatu zuen. **Alberto** da aita, bergararra.



**Nahia Eraña Mendez** eta **Jose Luis** aita, atxabaltarrak biak. Nahia apirilaren 25ean jaio zen, eta 3,550 kilo pisatu zuen. **Enkarna** da ama, donostiarra.



**Asier Garro Diaz de Gereñu** eta **Idoia** ama, eskoriatzarrak biak. Asier apirilaren 26an jaio zen, eta 2,900 kilo pisatu zuen. **Jose Ignazio** da aita, eskoriatzarra bera ere.



**Josune Jimenez Mujika** eta **Bittor** aita, bergararrak biak. Josune apirilaren 25ean jaio zen, eta 3,650 kilo pisatu zuen. **Amaia** da ama, bergararra bera ere.

## URTEURRENA

### Poli
### Ortiz de Anda Fdez. de la Torre

*Narciso Zubiagaren alarguna*

2000ko maiatzaren 5ean hil zen
94 urte zituela.
Lehen urteurreneko meza
zapatuan, maiatzak 5, 19:00etan,
Arrasateko parrokian



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**Zure lagun edo senitartekoren bat ezkontzekotan badago eta zoriondu nahi baduzu, hemen duzu aukera. Ekarri bikotearen argazki bat *Goienkaria*ko erredakziora edo egoitza hauetara: *Aretxagazeta* eta *Arrasate Press*eko egoitzetara.**

# Eguraldia

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

## ZAPATUA, 5

Egun lainotsua izango da zapatua; euri txikia egingo du. 1.200 metrotik gora, elurra ere egin dezake. Tenperaturak behera egingo du. Haizea iparraldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Egun euritsua.
**Errioxa:** Euria nagusi.
**Pirinioak:** Euritsua.

## DOMEKA, 6

Oso lainotsua izango da domeka. Tarteka euria ere egin dezake. Tontorretan elurra egingo du. Tenperatura ez da aldatuko. Haizeak iparraldetik joko du, arin.

**Nafarroako Erribera:** Lainoak eta ostarteak.
**Errioxa:** Ostarteak nagusi.
**Pirinioak:** Lainoak eta ostarteak.

### ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**11° C**

### ILARGIAREN ALDIAK: MAIATZA

| ilbetea | ilbehera | ilberri | ilberri |
|---|---|---|---|
| 7 | 15 | 23 | 29 |

### EGUZKIA: MAIATZAREN 6a

Sortu 07:10
Gorde 21:18

# Urkuluko urtegia

**Oraingo astean ere gora egin du Urkuluko ur mailak. Joan zen astean %97,15 zen; oraingo astean, berriz, %97,66. Eta badirudi, gainera, gora jarraituko duela, euria iragarri baitute adituek.**

**%97,6**

# Mezak

**ARANTZAZUKO SANTUTEGIA**

**Astegunetan**
08:30, 12:00.
**Zapatuetan**
08:30, 12:00, 19:30.
**Domeka eta jaiegunetan**
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

# Telefonoak

**((112)) SOS DEIAK**

### OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---|---|
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Oñati | 943 78 23 12 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospitalea | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 79 74 58 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 79 10 52 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

### DEBAGOIENA

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Abere hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elkartea | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Kapirixo | 943 71 63 23 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| Arrasate / AED | 943 77 12 28 |
| Aretxabal. / Loramendi | 943 77 09 70 |
| Bergara / Jardun | 943 76 08 19 |
| Eskoriatza / Axtroki | 943 71 54 34 |
| Oñati / Laixan | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 64 80 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943-79 10 00 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

# Zozketak

### BONOLOTOA

| EGUAZTENA 2 | MARTITZENA 1 | ASTELEHENA 30 | EGUBAKOITZA 27 |
|---|---|---|---|
| 05 • 15 • 21 • 22 • 23 • 25 | 10 • 22 • 35 • 40 • 44 • 45 | 15 • 20 • 22 • 30 • 44 • 46 | 14 • 20 • 23 • 29 • 33 • 40 |
| OSAGARRIA: 33 | OSAGARRIA: 47 | OSAGARRIA: 34 | OSAGARRIA: 3 |
| ITZULKETA: 7 | ITZULKETA: 5 | ITZULKETA: 4 | ITZULKETA: 3 |

### LOTERIA PRIMITIBOA

| DOMEKA 29 | ZAPATUA 28 | Saritzarra EGUENA 26 |
|---|---|---|
| 10 • 11 • 28 • 37 • 42 • 44 | 01 • 02 • 03 • 34 • 38 • 39 | 14 • 33 • 35 • 43 • 47 • 49 |
| OSAGARRIA: 27 | OSAGARRIA: 35 | OSAGARRIA: 40 |
| ITZULKETA: 1 | ITZULKETA: 8 | ITZULKETA: 1 |

### ONCE

| EGUAZTENA 2 | MARTITZENA 1 | ASTELEHENA 30 | DOMEKA 29 | Kupoitzarra EGUBAKOITZA 27 |
|---|---|---|---|---|
| 10.278 | X | 97.257 | 06.125 (009 seriea) | 87.816 (047 seriea) |

*Erakunde hauen laguntzaz*
Gipuzkoako Foru Aldundia
Europar Batasuna
Arrasateko Udala
Aramaioko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala
Antzuolako Udala

# Autobusak

**PESA 902 10 12 10**

**A:** Astegunak / **Z:** Larunbatak / **J:** Jaiegunak eta Igandeak

### DONOSTIA-GASTEIZ

| BERGARA | | | ARRASATE | | | ESKOLA P. | | | ARETXABALETA | | | ESKORIATZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 06:45 | 07:15 | 09:15 | 07:00 | 07:30 | 09:30 | 07:45 | — | — | 07:05 | 07:35 | 09:35 | 07:10 | 07:40 | 09:40 |
| 07:15 | 08:15 | 11:15 | 07:30 | 08:30 | 11:30 | 13:20 | | | 07:35 | 08:35 | 11:35 | 08:40 | 08:40 | 11:40 |
| 08:15 | 09:15 | 14:15 | 08:30 | 09:30 | 15:30 | | | | 08:35 | 09:35 | 15:35 | 09:40 | 09:40 | 14:40 |
| 09:15 | 11:15 | 15:15 | 09:30 | 10:30* | 14:30 | | | | 09:35 | 10:35 | 14:35 | 10:40 | 10:40 | 15:40 |
| 11:15 | 13:00 | 17:15 | 10:30 | 11:30 | 16:30 | | | | 10:35 | 11:35 | 16:35 | 11:40 | 11:40 | 16:40 |
| 13:00 | 14:15 | 18:30 | 11:30 | 12:30* | 17:30 | | | | 11:35 | 12:35 | 17:35 | 12:40 | 12:40 | 17:40 |
| 14:15 | 15:15 | 19.15 | 12:30* | 13:15 | 18:30 | | | | 12:35* | 13:35 | 18:35 | 13:40 | 13:40 | 18:40 |
| 14:25 | 18:30 | 21:15 | 13:15 | 13:30* | 18:45 | | | | 13:20 | 14:35 | 18:50 | 14:50 | 14:40 | 18:55 |
| 15:15 | 19:15 | 21:45 | 13.30* | 15:30 | 19:30 | | | | 13.35* | 15:35 | 19:35 | 15:40 | 15:40 | 19:40 |
| 16:00 | 20:30 | | 14:30 | 14:30 | 21.30 | | | | 14:45 | 16:35 | 21:35 | 16:40 | 16:40 | 21:40 |
| 18:30 | 21.15* | | 14:40 | 16:30 | 22:00 | | | | 15:35 | 17:30 | | 17:40 | 17:40 | |
| 19:15 | 21:45 | | 15:30 | 17:30* | | | | | 16:35 | 18:35 | | 18:40 | 18:40 | |
| 20.30 | | | 16:15 | 18:30 | | | | | 17:35* | 19:35 | | 18:55 | 18:55 | |
| 21.15* | | | 16:30 | 18:45 | | | | | 18:35 | 21:35 | | 19:40 | 19:40 | |
| 21.45 | | | 17:30* | 19:30 | | | | | 18:50 | | | 21:40 | 21:40 | |
| | | | 18:30 | 20:45 | | | | | 19:35 | | | 22:10* | | |
| | | | 18:45 | 21:30 | | | | | 21:35 | | | | | |
| | | | 19:30 | 22:00 | | | | | 22:05* | | | | | |
| | | | 20:45 | | | | | | | | | | | |
| | | | 21:30 | | | | | | | | | | | |
| | | | 22:00 | | | | | | | | | | | |

(*) Landatik.

### GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

| GASTEIZ | | | ESKORIATZA | | | ARETXABALETA | | | ARRASATE | | | BERGARA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 06:30** | 06:30** | 08:30** | 06:20 | 07:05** | 09:05** | 06:25 | 07:10** | 09:10** | 06:30 | 07:20* | 09:20** | 06:45 | 07:35* | 09:35* |
| 07:30 | 07:30 | 09:00 | 07:05** | 08:05 | 09:35 | 07:10** | 08:10 | 09:40 | 07:20** | 07:20* | 09:50 | 07:35** | 07:35* | 10:05 |
| 08:30** | 08:30** | 10:30** | 08:05 | 09:05** | 11:05** | 08:10 | 09:10** | 11:10** | 08:20 | 08:20 | 11:20** | 08:35 | 08:35 | 11:35* |
| 09:30** | 09:30** | 12:30** | 09:05** | 10:05** | 13:05** | 09:10** | 10:10** | 13:10** | 09:20** | 09:20** | 13:20** | 09:35** | 09:35** | 13:35* |
| 10:30** | 10:30** | 15:30** | 10:05** | 11:05** | 16:05** | 10:10** | 11:10** | 16:10** | 10:20* | 10:20** | 16:20** | 10:35 | 13:35 | 17:35* |
| 11:30* | 11:30* | 16:30* | 11:05** | 12:05* | 17:05* | 11:10** | 12:10* | 17:10* | 10:20* | 11:20** | 17:20* | 13:35* | 13:35** | 19:35* |
| 12:30* | 12:30 | 17:30** | 12:05* | 13:05* | 18:05** | 12:10* | 13:10* | 18:10** | 11:20** | 12:20* | 18:20** | 13:35* | 14:35 | 20:35* |
| 12:30* | 12:30* | 18:30* | 13:05** | 13:05* | 19:05* | 13:10** | 13:10* | 19:10* | 12:20* | 13:20* | 19:20* | 14:35 | 17:35* | 21:35* |
| 13:30* | 13:30* | 19:30* | 14:05* | 14:05* | 20:05* | 14:10* | 14:10* | 20:10* | 13:20* | 13:20* | 20:20* | 15:35 | 19:35 | |
| 15:30** | 14:30* | 20:30** | 15:05 | 15:05* | 21:05** | 15:10 | 15:10* | 21:10** | 13:20* | 14:20* | 21:20** | 17:35* | 20:35* | |
| 14:30 | 15:30** | | 16:05** | 16:05** | | 16:10** | 16:10** | | 14:20* | 15:20* | | 18:45 | 21:35** | |
| 16:30* | 16:30* | | 17:05* | 17:05* | | 17:10* | 17:10* | | 15:20 | 16:20** | | 19:35 | | |
| 17:30** | 17:30** | | 18:05** | 18:05** | | 18:10** | 18:10** | | 16:20* | 17:20* | | 20:35* | | |
| 18:30 | 19:30** | | 19:05 | 19:05 | | 19:10 | 19:10 | | 17:20* | 18:20** | | 21:35** | | |
| 19:30* | 20:30** | | 20:05* | 20:05* | | 20:10* | 20:10* | | 18:20** | 19:20 | | | | |
| 20:30** | | | 21:05** | 21:05** | | 21:10** | 21:10** | | 18:30 | 20:20* | | | | |
| | | | | | | | | | 19:20 | 21:20** | | | | |
| | | | | | | | | | 20:20* | | | | | |
| | | | | | | | | | 21:20* | | | | | |

(*) Landatik.
(*) Eibarreraino
(*) Bergararaino

### DONOSTIA-BILBO

| DONOSTIA | | | ANTZUOLA | | | BERGARA | | | ELGETA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 07:00 | 07:00 | 08:30 | 08:30 | 09:18 | 10:00 | 06:35* | 09:10 | 10:10 | 08:50 | 09:20 | 10:20 |
| 16:30 | 16:30 | 19.00 | 09:40 | 12:05 | 17:55 | 08:40 | 12:15 | 18:10 | 14:00 | 18:20 | 18:20 |
| | | | 12:05 | 19:35 | 18:35 | 09:50 | 18:10 | 18:45 | 18:20 | | 20:50 |
| | | | 16:40 | | 20:30 | 12:15 | 19:45 | 20:40 | | | |
| | | | 17:15 | | 22:05 | 13:45 | 20:50 | 22:15 | | | |
| | | | 18:00 | | | 16:50 | | | | | |
| | | | 19:35 | | | 17:25 | | | | | |
| | | | 20:40 | | | 18.10 | | | | | |
| | | | | | | 19:45 | | | | | |
| | | | | | | 20:50 | | | | | |

(*) Astelehenetan bakarrik. Bergara-Eibar-Bilbo autopistatik

### BERGARA-OÑATI

| BERGARA | OÑATI |
|---|---|
| A | A |
| 07:20 | 07:40 |
| 09:35 | 09:55 |
| 13:35 | 13:55 |
| 16:35 | 16:55 |
| 18:35 | 18:55 |
| 19:35 | 19:55 |
| 20:45 | 21:05 |
| Z | Z |
| 20:45 | 21:05 |

### BILBO-DONOSTIA

| BILBO | | | ELGETA | | | BERGARA | | | ANTZUOLA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 08.00 | 08:00 | 09:00 | 08:50 | 08:50 | 09:50 | 08:00* | 08:00* | 09:30* | 08:10* | 08:10* | 09:40* |
| 17:00 | 17:00 | 17:00 | 14:05* | 17:50 | 17:50 | 09:00 | 09:00 | 10:00 | 09:10 | 09:10 | 10:10 |
| | | | 17:50 | | | 11:00* | 14:00* | 18:00* | 11:10* | 14:10* | 18:10 |
| | | | | | | 14:00* | 18:00 | 18:30 | 14:10* | 18:10 | 18:40* |
| | | | | | | 15:00* | 20:30• | | 15:10* | | |
| | | | | | | 17:00* | | | 17.10 | | |
| | | | | | | 20:30* | | | 18:10 | | |
| | | | | | | 18:00 | | | | | |

(*) Elgeta-Bergara.
(*) Bergara-Zumarraga.
(*) Bergara-Antzuola.
(*) Bergara-Zumarraga.

### OÑATI-BERGARA

| OÑATI | BERGARA |
|---|---|
| A | A |
| 07:00 | 07:20 |
| 08:00 | 08:20 |
| 13:10 | 13:30 |
| 13:55 | 14:15 |
| 16:05 | 16:25 |
| 16.15 | 16:35 |
| 17.10 | 17:30 |
| 19:10 | 19:30 |

### OÑATI-ARRASATE-BILBO

| OÑATI | | | ARRASATE | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J |
| 09:15 | 09:15 | 19:15 | 09:30 | 09:30 | 19:30 |
| 18:15 | 18:15 | | 18:30 | 18:30 | |

### BILBO-ARRASATE-OÑATI

| BILBO | | | ARRASATE | | | OÑATI | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 14:30 | 14:30 | 12:00 | 15:30 | 15:30 | 22:00 | 15:45 | 15:45 | 22:15 |
| 20:00 | 20:00 | | 21:00 | 21:00 | | 21:15 | 21:15 | |

### BERGARA-ARRASATE-BILBO

| BERGARA | | | ARRASATE | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J |
| 06:30 | 07:15 | 14:30 | 06:45 | 07:30 | 14:45 |
| 14:30 | 14:30 | 19:15 | 14:45 | 14:45 | 19:30 |

### BILBO-ARRASATE-BERGARA

| BILBO | | | ARRASATE | | | BERGARA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 12:30 | 12:30 | 12:30 | 13:30 | 13:30 | 13:30 | 13:45 | 13:45 | 13:45 |
| 20:00 | 20:00 | 19:30 | 21:00 | 21:00 | 20:30 | 21:15 | 21:15 | 20:45 |
| | | 21:00 | | | 22:00 | | | 22:15 |

### BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA

| BERGARA | | | OÑATI | | | ARRASATE | | | ARETXABALETA | | | ESKORIATZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 07:25 | 09:35* | 14:35* | 07:00 | 07:00* | 09:00 | 07:20 | 06:20 | 09:20 | 07:30 | 06:30 | 15:00 | 07:40 | 06:40 | 15:10* |
| 08:35* | 11:35* | 16:35* | 07:45* | 09:00* | 11:00 | 07:40 | 07:20* | 11:20 | 07:50 | 07:30 | 15:30 | 08:00 | 07:40* | 15:40 |
| 09:35 | 13:35 | 18:35* | 09:00 | 11:00* | 13:00 | 08:05* | 09:20* | 13:20 | 08:15* | 09:30 | 17.00 | 08:25* | 09:40* | 17:10* |
| 10:35* | 15:35* | 21:05* | 11:00 | 13:00* | 15:00 | 08:50* | 09:50* | 14:50* | 09:00* | 10:00 | 17.30 | 09:10* | 10:10* | 17:40 |
| 11:35* | 16:35 | 21:35* | 13:00* | 15:00 | 17:00 | 09:20 | 11:20* | 15:20 | 09:30 | 11:30 | 19:00 | 09:40 | 11:40* | 19:10* |
| 12:35 | 17:35 | | 14:00 | 17:00 | 19:00 | 09:50 | 11:50* | 16:50* | 10:00 | 12:00 | 19:30 | 10:10 | 12:10* | 19:40 |
| 13:35 | 18:35* | | 15:00 | 19:00 | 21:00 | 10:50* | 13:20* | 17:20 | 11:00* | 13:30 | | 11:10* | 13:40* | |
| 14:35* | 19:35 | | 17:00 | 21:00 | 22:00 | 11:20 | 13:50 | 18:50* | 11:30 | 14:00 | | 11:40 | 14:10 | |
| 15:35* | 21:05 | | 19:00 | | | 11:50* | 15:20 | 19:20 | 12:00* | 15:30 | | 12:10* | 15:40 | |
| 16:35 | 21:35* | | 20:00* | | | 12:50 | 15:50* | 21:20* | 13:00 | 16:00 | | 13:10 | 16:10* | |
| 17:35* | | | 21:00 | | | 13:20* | 16:50 | 21:50* | 13:30* | 17.00 | | 13:40* | 17:10 | |
| 18:35* | | | | | | 13:50 | 17:20 | 22:20 | 14:00 | 17.30 | | 14:00 | 17:40 | |
| 19:35 | | | | | | 14:20 | 17:50 | | 14.30 | 18:00 | | 14:40 | 18:10 | |
| 21:05* | | | | | | 14:50* | 18:50* | | 15:00* | 19:00 | | 15:10 | 19:10* | |
| 21:35 | | | | | | 15:20 | 19:20 | | 15:30 | 19:30 | | 15:40 | 19.40 | |
| | | | | | | 15:50* | 19:50 | | 16:00* | 20:00 | | 16:10 | 20:10 | |
| | | | | | | 16:50 | 21:20 | | 17.00 | | | 17:10 | | |
| | | | | | | 17:20 | 21:50* | | 17.30 | | | 17:40 | | |
| | | | | | | 17:50* | | | 18:00* | | | 18:10 | | |
| | | | | | | 18:50* | | | 19:00* | | | 19:10 | | |
| | | | | | | 19:20 | | | 19:30 | | | 19.40 | | |
| | | | | | | 19:50 | | | 20:00 | | | 20:10 | | |
| | | | | | | 20.20* | | | 20.30* | | | 20:40 | | |
| | | | | | | 21:20* | | | | | | | | |
| | | | | | | 21:50 | | | | | | | | |

(*) Gutxitu fisikoendako prestatuta.

### ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR

| ESKORIATZA | | | ARETXABALETA | | | ARRASATE | | | OÑATI | | | BERGARA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 06:45* | 07:45* | 14:45* | 06:55* | 07:55* | 14:55* | 05:55 | 08:05* | 08:35 | 07:40* | 08:55* | 08:55 | 06:10 | 08:20* | 13:20 |
| 07:00* | 09:45* | 16:15 | 07:10* | 09:55* | 16:25 | 07:05* | 08.35* | 09:35 | 08:55 | 10:55* | 09:55 | 07:20* | 10.20* | 15:20* |
| 07:45 | 10:15* | 16:45* | 07:55 | 10:25* | 16:55* | 07:20* | 10:05* | 11:35 | 10:55 | 12:55* | 11:55 | 08:20 | 12:20* | 17:20* |
| 08:15 | 11:45* | 18:15 | 08:25 | 11:55* | 18:25 | 08:05 | 10:35* | 13:05 | 12:55* | 14:55 | 14:55 | 09:20* | 14:20* | 19:20* |
| 08:45* | 12:15* | 18:45* | 08:55* | 12:25* | 18:55* | 08:35 | 12:05* | 14:35 | 13:55 | 16:55 | 16:55 | 10:20* | 15:20 | 20:20* |
| 09:45* | 13:45* | 19:45* | 09:55* | 13:55* | 19:55* | 09.05* | 12:35* | 15:05* | 14:55 | 18:55 | 18:55 | 11:20 | 16:20 | |
| 10:15 | 14:15 | 20:15 | 10:25 | 14:25 | 20:25 | 10:05* | 14:05* | 15:30 | 16:55 | 21:05 | 20.55 | 12:20 | 17:20* | |
| 10:45 | 14:45 | | 10:55 | 14:55 | | 10.35 | 14:35 | 17:05* | 18:55 | | | 13:20* | 18:20 | |
| 11:45 | 15:45 | | 11.55 | 15:55 | | 11:05 | 15:05 | 18:35 | 19:55* | | | 14:20* | 19:20 | |
| 12:15* | 16:15 | | 12:25* | 16:25 | | 12:05 | 16:05 | 19:05* | 21:05 | | | 15:20 | 20:20* | |
| 12.45* | 16:45* | | 12:55* | 16:55* | | 12:35* | 16:35 | 20:05* | | | | 16:20* | | |
| 13:15 | 17:45 | | 13:25 | 17:55 | | 13:05* | 17:05* | 20:35 | | | | 17:20* | | |
| 13:45* | 18:15 | | 13:55* | 18:25 | | 13:35 | 18:05 | | | | | 18:20 | | |
| 14:15 | 18:45 | | 14:25 | 18:55 | | 14:05* | 18:35 | | | | | 19:20* | | |
| 14:45 | 19:45* | | 14:44 | 19:55* | | 14:35 | 19:05 | | | | | 20:20 | | |
| 15:45* | 20:15 | | 15:55* | 20:25 | | 15:05 | 20:05* | | | | | | | |
| 16:15 | | | 16:25 | | | 16:05* | 20:35 | | | | | | | |
| 16:45* | | | 16.55* | | | 16:35 | | | | | | | | |
| 17:45 | | | 17:55 | | | 17:05* | | | | | | | | |
| 18:15 | | | 18:25 | | | 18:05 | | | | | | | | |
| 18:45* | | | 18.55* | | | 18:35 | | | | | | | | |
| 19:15* | | | 19:25* | | | 19:05* | | | | | | | | |
| 19:45 | | | 19:55 | | | 19:35* | | | | | | | | |
| 20:15 | | | 20:25 | | | 20:05 | | | | | | | | |
| 20:45 | | | 20:55 | | | 20:35 | | | | | | | | |
| | | | | | | 21.05 | | | | | | | | |

(*) Gutxitu fisikoendako prestatuta.

### BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA

| BERGARA | | | ANTZUOLA | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J |
| 08:00 | 08:00 | 09:30 | 08:10 | 08:10 | 09:40 |
| 14:00 | 14:00 | 18:30 | 14:10 | 14:10 | 18:40 |

### IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR

| IRUÑEA | | | ANTZUOLA | | | BERGARA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | J | A | Z | J | A | Z | J |
| 10:30 | 10:30 | 17:00 | 12:05 | 12:05 | 18:35 | 12:15 | 12:15 | 18:45 |
| 18:00 | 18:00 | 20:30 | 19:35 | 19:35 | 22:05 | 19:45 | 19:45 | 22:15 |

# Hitz gezidunak

Luma




# Bila-bila 7







# Umore giroan

Iñigo Almortza

**BRAGETIA ZABALIK**

Bajabillan mutikua kalian baloiakin jolasian. Aspertu dok eta etxera igo dok, eta aitta ikusi jok bragetia zabalik. Jun dok beragana eta...

- Aitxa, aitta, zer daukazu hor?

-Hemen, potruak, motel, potruak.

Eta andriak:

- Baiña, Migel, hori edukaziñua, zelan esaten dotsazu berba horrek mutikuai, dirurik ez dogu edukiko, baiña edukaziñua bai, behintzat!

Eta gizonak:

-Bai, horrek daukan gosiakin esaiozu arrautzak diela...

**NOIVEDADES ZINE SARRERAN**

Juan da Patxi Bergarako zinera, Novedadesera, eta txarteldegikuai:

- Emoidazu bat.

Emon dotsa eta jun da, eta berriro:

- Emon beste bat.

Emon dotsa berriro be beste bat, eta geruau beste hiru bider etorri jako sarrera erostera. Bosgarrenian, harrittuta, esan dotsa txarteldegikuak:

- Baiña zertan habil ba, bost sarrera emon dostat eta.

-Bai, baiña ateko txotxolo horrek apurtu egitten jostak.

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Ondorengo herrietatik zeinek ez du Debagoienarekin eta Aramaiorekin muga egiten?

Zortzi herrik osatzen dute Debagoiena: Bergara, Antzuola, Elgeta, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga. Bestalde, Aramaiok, Araba izan arren, harreman handiagoa dauka Debagoienarekin Arabako beste herriren batekin baino. Debagoienak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako herriekin egiten du muga. Baina, jakingo zenuke, ondoren aipatzen ditugun herrien artean, zeinek ez duen muga egiten Debagoienarekin edo Aramaiorekin?

- Elgoibar
- Azkoitia
- Azpeitia

**Erantzun zuzena:** Azpeitia

## Soluzioak



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ● | A | ● | O | ● |
| | | | A | N | T | Z | A |
| | | | ● | D | A | T | U |
| ● | B | ● | L | E | M | A | ● |
| K | A | K | A | R | A | ● | T |
| ● | S | O | P | E | L | A | R |
| L | A | ● | O | Ñ | A | T | I |
| ● | K | I | N | O | ● | A | K |
| G | A | Z | I | ● | A | R | I |
| ● | T | U | A | K | ● | I | T |
| Z | U | R | ● | A | S | K | I |
| ● | A | R | O | ● | S | O | A |
| O | K | I | N | A | ● | A | K |

# Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zure bizitzan gertatzen ari diren aldaketen beldur zaren arren, argitasunez eta lasaitasunez egin behar diezu aurre.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Erronka handiak direla eta, informazioa bildu beharko duzu asmo horiek konfiantzaz eta ziurtasunez gauzatu ahal izateko..

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Saiatu eraginkorra izaten eta eskatu dizkizuten lanak ausardiaz egiten, zure ahaleginak emaitzak izango ditu eta.

**CANCER**
*ĕkainak 22-uztailak 22*

Landu zure ametsak, bihar poztasunak ekarriko dizkizute eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Orain hasi zara hainbeste ahalegin eskatu dizuten egoerak ulertzen. Ez galdu zure buruarengan daukazun konfiantza.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Zure ardura beharko duten arazoak agertuko zaizkizu. Egin iezaiezu aurre, horretarako prest zaude eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Orain arte defendatu dituzun balio eta arauak zure bizitzan erabiltzen hasiko zara. Emankorrak izango zaizkizula uste duzun egitasmoei heldu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zaindu zure erreakzioak, eta familian amorraraziko zaituzten egoerak agertu arren, zaude lasai.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Aste honetan zenbait arazori aurre egin beharko diezun arren, konfiantza gero eta handiagoa izango duzu. Saiatu gauzak edonola ez esaten, eskatu beharrekoa modu onean eskatuz gero errazago lortuko duzulako nahi duzuna.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Hasieran emankorra izango ez zela uste zenuen arren, lehendik ere hor inguruan zeneukan bide bati helduko diozu. Ekin horri konfiantzaz eta alaitasunez.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Pentsatu hitz egin aurretik. Kontuz ibili eginbehar arriskutsuekin baina zure sormenari uko egin gabe.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Bizi zure ingurukoekin barruan daramazun alaitasuna. Aprobetxatu aste hauxe, mesedegarria izango baita zuretzat, laguntza eta onarpena jasoko dituzulako.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com**

## Telebegi

### *Mezuak eta medioak*

Famatuak egin ziren Nixon eta Kennedyren arteko telebista eztabaidak, Estatu Batuetako lehendakaritzarako lehian zebiltzatela. Parez pare ezartzen zituzten bi hautagaien janzkera, hitzjarioa, telegenia, argumentazioa eta eskuen mugimenduak neurtuak izaten ziren Etxe Zurirako norgehiagoka haietan. Telebistak, zelabaiteko, notario eta transmisore lanak betetzen zituen.

Denboran ere geurera hurbilduz, eta XX. mendearen azken hamarkadan izan ditugun hauteskundeak errepasatuz, medioen erabilera nagusitu da. UCDren (eta PSOErena gero) tresna zen RTVE, eta bertaratzen ziren gainontzekoek etxetik kanpo ari diren futbol-jokalarien inpresioa jasotzen zuten sarritan. Aurkezlearen galdera gaizto eta eraso dialektikoetatik ahal bezain ondo ateratzea izaten zuten helburu. Arrotzak kontsideratzen ziren medioetan mezu propioa zabaltzea zen kontua. Eskainiko zitzaizkien minutuak errentagarri bilakatzeko asmoa zuten Gobernuan ez zeuden lehiakideek.

Gaur egungo egoeran zertxobait aldatu da. Medio publikoen erabilera patrimonialista eta irrati-telebista pribatuen menpekotasunak mezuen aniztasunaren desagerketa ekarri du. Medioen ugazabek (dirutan zein ideologikoak) bakarrik daukate mezuak zabaltzeko ahalmena. Agintzen dutenekin bat ez etortzeak (kontra egoteak zer esanik ez!) mediatikoki desagertzera kondenatu ditu mezulari asko.

Arrazoia zuen McLuhanek: "Medioa da mezua".



Edorta Arana

## GOITB kiroletan

Zapatu eta domekan, 12:00etan

### Elgetako pilota txapelketa

Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketako partiduak izango dira asteburuan. Afizionatu mailako txapelketa garrantzitsuenetarikoa da eta GOITBk partidu interesgarrienak osorik emitituko ditu. Zapatuan eta domekan, eguerdian, bi partidu izango dira ikusgai: Indurain-Arrieta eta Amarika-Elizondo. Bestalde, maiatzaren 8an, Bergara Hiria pilota txapelketa hasiko da. Txapelketa horretan Euskal Herriko bikoterik onenak arituko dira. Partidu guztiak Bergarako Udal Pilotalekuan jokatuko dira eta handik ere osorik eskainiko ditu partiduak GOITBk. Esatari Ianetan, Anartz Agirre kazetaria eta Elgeta Oskarbi taldeko ordezkari Juan Luis Ubera izango ditugu.

## Irratia telebistan

Martitzenean, 21:05ean

### Arrasate Irratiko ospakizuna

Maiatzaren 8an, urtea beteko da Arrasate Irratia ARKOren babespean emititzen hasi zela. Urteurrena ospatzeko, herriko irratiak saio berezia egingo du martitzenean, eta telebistak gauean eskainiko du tarte hori. Irratiko kideek musikaren inguruan antolatu dute urteurreneko saioa. Hasteko, Erguin eskolako umeek Zorionak abestuko dute, eta gero, Eguzki taldeari elkarrizketa egingo diote. Jarraian, Anger talde arrasatearraren txanda izango da, eta gero, *disc jockey*ek jardungo dute. Dj Kaiet eta Dj Kirri-in arituko dira zuzenean "pintxatzen".

FM 107.7 Arrasate Irratia

## Goibegirada

Eguenean, 21:05ean

### Hautagaiak telebistan

Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina barikuan amaitzen dela eta, GOITBk hautagaiak gonbidatu ditu *Goibegirada* saiora. Mikel Irizarrek gidatutako saioan, alderdi politikoetako zerrendagaiak izango dira: Joseba Egibar (EAJ), Joseba Permach (EH), Martin Aranburu (EA) eta Antton Karrera (IU-EB). PSE-EEko eta PPko ordezkariek ere gonbidapena jaso dute, baina ez dira GOITBko tartean izango. Bestalde, aste barruan, albistegien barruan alderdi politikoetako hautagaiei tartea eskainiko diegu. Hautagai bakoitzarekin bost minutuko elkarrizketa izango dugu, eta amaitzeko, hautagai guztiak mahaiaren bueltan jarriko ditugu. Eguenean, 21:00etatik aurrera, Goiena Telebistan.

goitb Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Maiatza 4-10

| EGUBAKOITZA 4 | ZAPATUA 5 | DOMEKA 6 | ASTELEHENA 7 | MARTITZENA 8 | EGUAZTENA 9 | EGUENA 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete**<br>21:30 **Soinuz blai** | 12:00 **Pilota** Afizionatuen banakako txapelketa lau t'erdian<br>13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 12:00 **Pilota** Afizionatuen banakako txapelketa lau t'erdian<br>13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Astebete**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Irratiko ospakizuna** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Irratiko ospakizuna**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Alkatearekin berbetan** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goibegirada**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goibegirada**<br>21:05 **Soinuz blai** |

## Barruko kontuak

### 'ALKATEAREKIN BERBETAN'

Astebete atzeratu behar izan dugu Mireia Unamuno Antzuolako alkatearekin aurrez egindako hitzordua. Mireia dugu Debagoieneko emakumezko alkate bakarra. Hortaz, datorren eguaztenean, hilak 9, Antzuolako herria izango dugu hizpide *Alkatearekin Berbetan* saioan, 21:00etatik aurrera. Jakin ezazue saioan bertan alkatearekin zuzenean berba egiteko aukera izango duzuela, 943 71 23 93 telefono zenbakira deituz gero.

### HAUTESKUNDE GAUA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak maiatzaren 13an egingo dira eta gure telebistan ere izango dute oihartzuna. Horretarako, Debagoieneko herri guztietan eta Aramaion banatuko da lantaldea, uneoro eta zuzen-zuzenean herri bakoitzeko datuak eskaintzeko. Platoan, berriz, Maria Agirre kazetariak, Mikel Irizarrek eta Mikel Lezamizek hauteskunde gauean gertatzen den guztiaren berri emango dizuete.

## Kamera aurrean



*"Alzheimerra gaixotasun demokratikoa da; ez du bereizten ez kultura, ez aberastasuna, ..."*

**Edurne Etxabe** | AFAGIko presidentea

"BERRIAK" (2001-04-2)



*"Kalean egunero ibiltzeko arropa egin dut. Baita gaueko arropa ere, glamourosoagoa"*

**Johana Madinabeitia** | Diseinatzailea

"BERRIAK" (2001-04-2)

**MONDRAGON UNIBERTSITATEAn**

*hezkuntzaren erdigunea* **ZU** *zara*



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

**HITZALDIA**

# ZERGATIK IKASI MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

M.U.ko Errektorea den Javier Retegi Jaunaren eskutik

***"Gure ikasleen %96-ak ikasketak bukatu eta berehala aurkitzen du lana"***

Javier Retegi Jaunak, zentruetako zuzendari eta orientatzaileei eta irakaskuntza ertainetako ikasle eta gurasoei zuzendutako hitzaldia eskeiniko du. Gazteak etorkizunari begira orientatzeko gomendioak emango ditu, M.U.k eginkizun hau nola betetzen duen azalduz. Era berean, unibertsitatearen hezkuntza eskaintza aurkeztuko du.

**ARRASATE**

Biteri Ikastetxe Nagusia
(Goi Eskola Politeknikoa)

**Asteartea,
Maiatza 15
18.30-etan**

www.muni.es
Tel. 943 71 21 85

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko maiatzaren 4a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Monika Muñoz/Ile-apaintzailea

**Noiztik ile-apaintzaile?**
Nire kontutik lanean hasi nintzela bi urte beteko dira laster. Iratxo ile-apaindegi mistoa ireki nuen. Aurrez, beste batean aritu nintzen.

**Emakumezkoen Gipuzkoako ile-apaintzaile lehiaketa irabazi duzu. Zein orrazkerarekin?**
Ile-mozketa egin nuen lehenbizi, hogei minutuan. Gero, ilea sikatu, eta azkenik, fantasiazko ile-batzea egin nion ordu erdian. Makillatu ere nik egin nuen.

**Non oinarritu zinen ile orrazkera hori egiteko?**
Ideia basoetako ninfetatik hartu nuen. Fantasiatik asko zuen orrazkerak, eta zaila da azaltzeko.

**Donostiako Kursaalen egin beharreko lana eta Iratxo ile-apaindegiko eguneroko lana zertan ezberdintzen dira?**
Lehiaketa horrek pasareletarako egiten den lanarekin du zerikusia. Kalean ibili ezin diren jantziak erakusten dira pasareletan, eta lehiaketa horretako orrazkerak ere ez dira kalean erabiltzekoak.

**Zertarako balio izaten dute lehiaketa horiek?**
Saria lortzeak oso poztasun handia ematen du, eta gainera, izena lortzea ere garrantzitsua da.

**Zergatik aurkeztu zinen lehiaketara?**
Gehienbat, izena lortzeko helburua nuen. Gainera, hasiberria naiz, eta Oñatin ile-apaindegi ugari dago. Jendeari erakutsi nahi nion gazteak izan arren balio dugula.

**Igarri duzu aldaketarik saria jaso duzunetik?**
Ez gehiegi, baina igarri dut jende berria etorri dela ile- apaindegira. Batzuek, gainera, esan ere egin didate egunkarian irakurri eta probatzera etorri direla.

**Zein orrazkera dago boladan?**
Denetik dago boladan, baina batez ere, nahiko ile motza edo luzapenak eramaten ditu jendeak. Irail bukaeran Alemanian egon nintzen munduko txapelketak eta antzerako feriak ikusten, eta gehienbat, luzapenak ikusten ziren.

**Urruti joan zinen...**
Bai. Lanbide honetan beharrezkoa da mugitzea.

**Zure ile-apaindegira joaten direnek zer egitea eskatzen dizute?**
Denetik. Dena dela, jendea ez da asko ausartzen. Bakoitzak bere estiloa du, eta hortik irtetea kosta egiten zaio jendeari. Norberak ikusi dituen berritasunak jendeari estiloarekin eta atrebentziarekin uztartzea da kontua.

**Ile-apaintzaile gehienak emakumezkoak dira, baina ospea gizonek lortzen dute. Zergatik?**
Gizonezkoen izaera ezberdina da. Berba egiterakoan-eta atseginagoak dira, eta emakumeak tratatzeko duten modua ere gustatu egiten zaie emakumeei.

**Ile-apaintzaileok kuxkuxero ospea duzue...**
Ez da horrela. Gu ez gara inoren bizimoduan sartzen. Ez dut gustuko inor kritikatzea.



**"Gizonezkoak berba egiterakoan-eta atseginagoak izaten dira, eta emakumeak tratatzeko duten modua ere gustatu egiten zaie emakumeei"**

**"Saria lortzeak oso poztasun handia ematen du, eta gainera, izena lortzea ere garrantzitsua da"**

► *Oñatiarra / 25 urte / Gipuzkoako lehiaketan 1. saria*

## AIPAGARRI



**IÑAKI MAIDAGAN**
**Mondragoe / Goikobaluko zuzendaria**

Griñongo Abesbatzen Sari Handian, Madrilen, bigarren sailkatu da Arrasateko Goikobalu abesbatza. Txapelketa joan zen asteburuan izan zen eta zortzi taldek hartu zuten parte. Gasteizko Vocalia abesbatza izan zen garaile. Goikobalu 45 bat lagunek osatzen dute.



**FEDERICO MAYOR ZARAGOZA**
**Bartzelona / UNESCOko zuzendari ohia**

Eeguenean, maiatzak 10, hitzaldia emango du MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan. Irakasle Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatu dute UNESCOko zuzendari ohiaren hitzaldia. "Gizarte ekonomiaren ekarpena XXI. mendeko erronka etiko-enpresarialaren aurrean" gaiaren inguruan jardungo du.

MECA
ARRASATE • San Andres, 8 • 943 71 24 72
BERGARA • Amillaga, 5 • 943 76 40 60




ESKAINTZA BEREZIA!
Ia berriak diren 10 auto baino gehiago aukeran.
* Finantzazioa: hiru kuotaraino doan.

Clio
ASTEBURUA
ERAKUSKETA ARRASATEN
Maiatzaren 4tik 6ra
ATE IREKIAK
ZAPATUA
10:00etatik 13:30etara
17:00etatik 19:30etara
DOMEKA
11:00etatik 13:30etara